

uk

189. zenbakia / 2011ko otsailaren 15a



Getxoko familietan
euskara sustatzeko proiektua



OLGETAN EUSKARAZ

BERRIA

2-3 urteko umerik baduzu, eta haiekin euskaraz jolastu eta kantatu nahi baduzu, aukera izango duzu "Olgetan euskaraz" proiektuarekin. Martxoan hasita eta ekainera arte, 2 talde egingo ditugu: Areeta-Romon eta Algortan. Talde bakoitzean 4-5 guraso, umeak eta dinamizatzaile bat egongo dira, eta astean behin, ordubetez euskarazko kantekin eta jolasekin gozatuko dute. Animatu eta jarri gurekin harremanetan!

GURASOENTZAKO IKASTAROA: ZER IKUSI, HA IKASI

Ikastaro teoriko-praktiko hau guraso eta hezitzaileentzat (irakasleak, begiraleak) da eta bertan **Urbe Kostako ondarea** (kantak, jolasak, berbak, etab.) ezagutuko dugu, umeekin erabili eta gozatzeko. *Zer ikusi, ha ikasi* DVDa oparituko diegu parte-hartzaile guztiei.

Noiz: otsailak 22 eta martxoak 1, astearteak + 17:30-19:30
Non: San Nikolas ikastolan
Matrikula: doan

Guraso-kopurua: 20 gehienez
Izena emateko epea: otsailaren 18ra arte
Begirale-zerbitzua: doan, ume guztientzat (aurretik jakinarazi)

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA
ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Armezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zubereroa Iturburu, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskaraz Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111


Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

Non zer

4. GU GEU.
 5. IRUDIA. Santa Ageda, Sopelana.
 7. LEHEN ETA ORAIN. Ondizko Baseliza, Leioa.
 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
 11. ERRETRATUA. Argiñe Munariz.
 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
 25. AGENDA.
- SAKONEAN**
26. ALBUMA. Greba orokorra, 2011ko urtarrilaren 27a.
 28. ARGAZKIA. Argazki zaharra, Plentzia.
 30. BERBETAN. Fermin Etxegoien.
 34. FOTOGRAFIA. Deo Villasante.
- KULTURA ETA AISIA**
42. ZINEMA. 778 La Chanson de Roland.
 43. MUSIKA. Andres Isasiren lan ezagunenak.
 44. LIBURUAK. Linguae Vasconum Primitiae etxean.
 45. KIROLAK. Urdulizko nesken eskubaloi taldea.
 46. ELKARRIZKETA. Iratxe Retolaza.
- AMAITZEKO**
49. NORA JOAN. Taberna Berri, Algorta.
 50. HOROSKOPOA.
 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
 53. FLASH BACK. Astrabuduko Atxazpe Mendi Taldea, 1957.
 54. AITORMENAK. David de Jorge, "Robin Hood".

Azala: Deo Villasante

www.ukaldizkaria.biz



30 Fermin Etxegoien

Berbetan
Patxadaz egin digu berba Argia, Espainiako Kritika eta Literaturako Euskadi sarien irabazleak.



11 Argiñe Munariz



54 David de Jorge



www.renaultleioa.com

Lelo
RENTACAR
Ibilgailu-aloakirua

Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Mespretxua

Azkenaldi honetan euskara gora eta behera dabilta batzuk, euskara berba erdirik ez dakitenak, eta biolentziagaz lotzen dutenak, hain zuzen ere. Gaur Aurelio Artetaren artikulua irakurri dut, El Correo Españolen, noski. Filosofia moral katedradunarentzat, euskarak ez du ezertarako balio, eta beren sostengurako politikei buruz sortu den eztabaida maltzur honetan egin beharrekoa hauxe litzateke: euskarari eskainitako dirua, beste inbertsioetan gastatu. Eta hori bai, ez du 'ahazten', nazionalistek euskara 'gizarte kontrolerako tresna' bezala erabili izana. Harrigarria da euskararen aurka, batzuk gordetzen duten mespretxua. 'Euskaldun gehienek gurago dute gazteleraz egin', dio filosofia katedradunak. Filo-sofos = jakintzaren zalea, grekoz. Aurelio Arteta, filosofoa. Benetan ere!

Iritzia

Otsailaren 26rako XXI. mendeko euskaldunon elkarteak Kongresua antolatu du Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak. Getxoko Bizarra Lepoan elkarteko kide batek horren inguruko berba batzuk oparitu dizkigu.

Olatua dakar otsailaren 26ak

50.000 euskaldun gara Uribe Kostan: asko. Eta eskualdeko euskaldunok euskaraz bizitzeko aukera dugu –aukera handiagoa edo txikiagoa– herrietako euskara-elkarteetan egiten dugun lanari esker, neurri batean. Euskara-elkarteok –Aitxu Sopelan, Berbalamiñe Leioan, Berbots Eran-

«**Nahikoa ote da euskara-elkarteok egiten dugun lana herri euskalduna lortzeko?»**

dion, eta Bizarra Lepoan eta Egizu Getxon–, herrietako beste eragile batzuekin batera –euskaltegiak, ikastetxeak, udalak, gaztetxeak, eskuetan duzun UK aldizkari hau eta ukberri.net, elkarteak...– lan handia egin dugu azken urteotan, besteak beste, euskaldunon komunitatea trinkotzen eta euskaldunontzako espazioak sortzen: aisialdian, kulturegintzan, kirolean, harremanetan, komunikabideetan...

Baina nahikoa ote da euskara-elkarteok egiten dugun lana –gure eskualdean eta Euskal Herri osoan– herri euskalduna lortzeko? Zer eta nola egin behar dugu aurrera begira? Nola sortu eta elikatu euskaldunon komunitatea, osasuntsu

egoteko eta iraunkorra izateko? Nola ehundu euskaldunon arteko harreman-sarea? Nola erakarrri euskaldunak eta oraindik euskaraz ez dakitenak? Zein diskurtsorekin kudeatu gizartearen geratzen ari diren aldaketak? Zein izango da Topagunearen –euskaldunon elkartearen federazioa– egitekoa aurrerantz?

Galdera horiek –eta beste asko ere– darabilzkigu Topagunea osatzen dugun elkarte eta eragileok. Hilabeteak daramatzagu galdera horiek hausnartzen, aztertzen, zabalitzen eta konpartitzen, auzo, herri eta hiriburuetan, olatu moduko prozesu batean. Eta orain eguna heldu da euskaltzaleok eta euskaldunon elkarte guztietako kideak batzeko, eztabaidatzeko baita ospatzeko ere, inoiz mugimendu honen baitan egingadako bilkurarik jendetsuenean: **otsailaren 26an, Bilboko Kafe Antzokian**. Horixe izango da **XXI. mendeko euskaldunon elkartearen kongresua**, euskaldunon elkartearen bilgune eta olatua. Animatu, etorri eta parte hartu!

Lander Solozabal
Bizarra Lepoan elkarteko kidea

gu geu**Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua**

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokalitik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskerari ugarri eskaintzen ditugu.

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoak hobetuz eta zabalduz. Edozelako gizarte eta kultura modernoren geroan giltzari da hedabideen zeregina. Printzipio eta helburuetan letra larritz aitortzen da garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez. Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundeen sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez nahikoa, aurrean ditugun erronkei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Hedabide ugari ari dira ixten munduan, gurean aldean handi eta indartsuak izandakoak. Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea

behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektratresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiratu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilero soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarritz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Oraingoan, herri erakunde publikoen sostengu ekonomiko handiagoa aldarrikatzera gatoz, errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezakeelako. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

UK aldizkaria eta beste 73 hedabide



2011KO OTSAILAREN 4A, LARRABASTERRA

Denbora barri, ohitura.../ Facebook, ipod edo lipdub-en garaian bizi garen arren, ohitura zaharrek euren tarte izaten jarraitzen dute gurean. Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, Uribe Kostako herri guztietan adin tarte guztietako kantariak agertu ziren plazaz plaza, ama lurrari deika: kaikua edo mendigoizalea, abarkak, zapia, kriseilua, txapela... eta nola ez, makila hartuta. Mp4 eta enparauen lekukoa hartu zuten, behintzat, egun batez. Hori bai, seguru batek baino gehiagok egun horretako argazkiak sare sozialetara igo dituela! Denbora barri, ohitura zahar eta barri! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka



Kopiak **SALGAI** bulego barrian

Martikoena 16, 2. solairua

Algorta (Getxo)

Alangoko Osasun Zentroaren alboan

Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



Iraganez doa denbora* beti / ONDIZKO BASELIZA, LEIOA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > metroak kaleetan



2010eko azaroa, Sopelana

Testua: **Imanol Uria** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Askorentzako den traba asko kutsatzen dugula eta kontzientziatuko al gara? Beraz natura zaindu dezagun, konponbide on bat hara; metroak ere sartu beharko dira errepideetara.

Beraz karbono dioxidoa dago geruzan barrena. Metroa denok erabiltzeak nahiz ta konpondu problema, baliabide bat bilatzea izan omen da dilema. Metroa kamioi baten jartzea ez zen biderik onena.

Ez dakit ia mundua ere zoratu ez den benetan. Hurrena ea zer gertatuko den nago duda-mudetan. Eta segiko dut creditransa lasai hartuz metroetan, kotxerik sartzen ez den artean metroaren bideetan.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai lezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!



- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Lan osogarria

- Elikagai Industriak higienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea.
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea.

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 Fax.94 443 78 81 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

euskara > euskaldunon elkarten kongresua otsailaren 26an



Info+: kongresua.topagunea.org webgunean

XXI. mendeko euskaldunon elkarteetako kideok lehen kongresua burutuko dugu otsailaren 26an, Bilboko Alhondregian; Topagunea Euskara Elkarten Federazioak jo ta ke lanean dihardu, duela urtebete baino gehiago abiatutako prozesuan. Gaur egun bidegurutze batean gaude euskara elkarteok; 20.000 bazkideetik gora biltzen duen mugimendua gara eta etorkizuneko erronkei buruz hausnartzen gabiltza, baita eginbeharrak zehazten ere. Jendarte aldaketak eta erakundeen politikak bezalako faktoreek gogoetarako beharra ekarri dute euskalgintzako erakunde askotara, tartean euskara elkarten mugimendura. Azarotik ona txosten nagusia eztabaidatzen eta ekarpenak egiten ibili gara, eta prozesua bururaino eroango dugu Bilboko bilkuran. Ondo sendotutako oinarrietatik abiatu gara gure iparra eta etorkizuneko erronkak zehazteko. Indarrez eta kemenez egingo dugu aurrera! ○

getxo > gerra zibileko herriko biktimak omendu ditu Udalak



Galeako pasealekuan ipini dute Mikel Lertxundiren Oroimenaren liburua eskultura

Gerra Zibilaren, aurreko gatazka zibilen eta Frankismoaren herriko biktimak omendu zituen Udalak otsailaren 5ean, Galeako pasealekuan; Udalbatzak aho batez onartu zuen omenaldia egitea. Biktima horien omenez ipini dute Mikel Lertxundiren *Oroimenaren Liburua* eskultura; UK-ko zenbaki honetan irakur dezakezu Lertxundiri egindako elkarrizketa, Getxoko orrietan. “*XX. mendeko gatazka sozial latzena eta mingarriena eta horren ondorioz heldu zen zorigaiztoko diktadura frankista luzea eta iluna jasan eta pairatu zuten auzokide getxotarren oroimena bizirik mantentzeko eta berreskuratzeko helburuagaz*” egin zuten omenaldia. Lore eskaintza eta minutu bateko isilunea egin zuten ekitaldian, Lauaxetaren bertsoak irakurri zituzten eta Biotz Alaik kantatu zuen. ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa





...harria ...lehenago garaiak... ...itsasoa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

euskara > editorial bateratua kaleratu dugu euskarazko 75 hedabidek



Harrituko zinen agian UK-ko zenbaki honetako “gu geu” atala irakurtzean, ez baita ohikoa, ez edukiagatik, ez eskaintako tartegatik. Baina hil honetan euskarazko bestelako komunikabideak irakurri badituzu, editorial hau ekimen bateratua dela jakingo duzu, euskarazko 75 hedabiderena. Erakunde publikoek euskarazko hedabideekiko duten jarreragaz kezkatuta, iazko azaroaren 30ean egin zen euskarazko hedabideen bilkura, sektorearen dimentsioaz, erakunde publikoetatik jasotzen duen trataeraz eta ekimenak abiatzeko beharraz aritzeko. Edozein jendartetan legez, gurean ere euskarazko hedabideak giltzari dira euskararen hiztun komunitatearen garapenerako. Baina krisi bikoitza bizi dugu, ekonomikoa eta lehenagotik datorren hedabideen krisia. Eguneroko erronka eder honi aurre egiteko, erakundeen sostengua beharrezko aldarrikapena publiko egin dugu, guztiek ulertzeko modukoa izango delakoan. ○

www.blogak.com/ehedabideak gunean duzu informazio gehiago

kultura > lehen Baserri Antzokia hartuko du Txorierrik, Derion



Txorierriko euskaldunon biltoki izango da 2012tik aurrera Euskal Herriko lehen Baserri Antzokia, Uribe Kostatik oso gertu. Totoan Txorierriko Euskera Alkarteen Federazioaren egitasmoa Derion kokatuko da. Proiektu “*zabala*” izango da, “*ideologia politikorik bakoa eta euskalduntasuna ardatz bakartzat dauena*”. Dagoeneko amaitu dute proiektua eta orain ekarpen ekonomikoa egin dezakete enpresek, partikularrek zein komertzioek. Kultur eta kirol ekimenak antolatuko dituzte: “*Euskerea eta kulturea doguz ardatz nagusi, eta antzokian euskeraz egiten diran ekitaldi guztiek eukiko dabe lekua*”; horietarako guneak izango ditu eraikinak, baita taberna eta jatetxea ere. Baina baserria den aldetik, lehen sektorearen erakusleho izatea ere gura dute. ○

Derioko seminarioaren atzean eraikiko dute Antzokia



[erretratua]

“Euskara altxorra da, baina ez museo batean gordetzeko, berba egiteko baizik”

Argiñe Munarriz > Berbalaguna, txistularia, irrintzilaria...

“**Gogoa, beti da gazte!**” esaeraren adibide dugu Argiñe Munarriz sopoloztarra. Santa eskean urten baino lehen egin dugu berbaldia beragaz, txistua eskuan duela. Orain dela bost urte hasi zen txistua jotzen: “*Nagusioi ere txistua jotzen irakasten ziguten galdetu nuen, eta baietz esan zidatenez, hasi nintzen*”. Solfoa txikitari ikasi zuenez, ez zaio hain gaitza egin txistularitzan aritzea: “*Halan da be, La agudoa ez zait ondo urteten*”. Irrintziak, ostera, ederto botatzen ditu Munarrizek. Andaluziara egindako azken bidaian, esaterako, ez zuen arazorik izan lau haizetara irrintziak botatzeko: “*Palos de la Fronteran dagoen Santa Maria karabelara igo, eta bertatik irrintzia bota nuen. Atzerritar danak harrিতuta lotu ziren, eta irrintzia zer den azaldu nien*”. Barrutik sentitzen den oihua da irrintzia, bere ustez: “*Eskolan irakatsi beharko lukete, eta andreok ez ezik, gizonezkoek ere ikasi behar dute*”. Baina euskara da, duda barik, bere pasio nagusia. Orain 40 urte baino gehiago hasi zen euskara ikasten, Bilbon: “*20 pezeta jartzen genituen hileru, argia eta lokala ordaintzeko, irakasleak ez zuen kobratzen*”. Egun, Sopolako eta Santutxuko berbalagun taldeetan dabil. “*Hil arte euskaraz berba egiten jarraituko dut. Euskara altxorra da, baina ez museo batean gordetzeko, berba egiteko baizik*”. Egizuko lagunak esaten duten lez, “*dabilen mihiari ez zaio goroldiorik lotzen!*” ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Egitasmo handiak aurrera doaz

Romoko Kultur Etxe barriko lanak **aurtengo udan** hasiko dira; Getxo Antzokiko lanak direla-eta itxita dagoen **Andres Cortina** kalea **ekainean zabalduko dute oinezkoentzat**

Romoko Kultur Etxeko eta Getxo Antzokiko lanak aurrera doaz. Kultur Etxeak sei solairu eta sotoa izango ditu hainbat zerbitzu hartzeko eta datorren udan hasiko dira lanak. Algortan barriz, Andres Cortina kalea oinezkoentzako zabalduko dute ekainean behin betiko.

Bakoitza bere aldetik, badoaz aurrera azken urteotan kultur azpiegiturei dago-kienez Getxoko egitasmo handi eta zalapartatsuenak: Getxo Antzokia eta Romoko Kultur Etxea. Azken honegaz hasteko lanen lehenengo fasea onartu barri dute eta aurtengo udan hasiko dira lanak. Santa Eugenia plazako eskola zaharrak botako dituzte aurrena eta indusketa eta eraikina altxatzeko lanak etorriko dira ondoren. Guztira 8 milioitik gora euro inbertituko dituzte Kultur Etxe barrian; lehenengo faserako, 3,1 milioiko aurrekontua aurreikusi dute.

Kulturari eta arteari zuzendutako 4.000 metro koadroko eraikina izango da Santa Eugeniako. Sei solairu eta sotoa izango ditu; azken horretan, 200 lagunentzako erabilera anitzeko ospakizun-aretoa egongo da, aldagelak, telekomunikazioen gela, udal artxibategi digitala eta liburutegi fondoagaz batera.

Beheko solairuan, hall nagusia, erakusketa-aretoa, ludoteka, Herritarren Arretarako Bulegoak eta plazan bertan sarlekua izango duen taberna jarriko dituzte. Lehen eta bigarren solairuan libu-



Sei solairu eta sotoa izango ditu Santa Eugenia plazako Kultur Etxe barriak

rutegiko azpiegiturak egongo dira: harre-
ra, infomazio eta mailegu gunea, heme-
roteka, kontsultarako ordenagailuak,
bakarka zein taldeka ikasteko gelak eta
umetxoteka eta ume-gazte liburutegia.
Nagusien Etxea hartuko du ere behin-

**«Kultur Etxeko lanak udan
hasiko dira; Algortako
Andres Cortina kalea
ekainean zabalduko dute»**

behinean bigarren solairuak; horrek,
gimnasioa, telebista gela, irakurtzeko
gela, ile-apaindegia eta podologia kon-
sulta izango ditu, besteak beste.

Hirugarren solairua Udal Euskaltegi-
ak beteko du eta laugarrenean erabilera
anitzeko aretoak izango dira. Bosgarren
solairua, musika eta dantzari eskainia

egongo da; erabilera anitzeko aretoak
izango ditu dantza, abesbatza eta pop-
rock taldeen entseguetarako. Aretoetako
bategi grabazio estudioa izango du.

Bestalde, Algortako erdigunean egon-
go den Getxo Antzokiko lanak ere aurre-
ra doaz; 3. fasean murgilduta daude lan-
gileak. Antzokiko aparkalekuko lanak
direla eta obren hasieragaz batera itxi
zuten Andres Cortina kalea, datorren
ekainerako oinezkoentzako zabaltzea
aurreikusten dute. Izan ere, lurpeko apar-
kalekuko lanak *«erritmo onean»* doazela
adierazi dute Udal iturriek. Kalearen alde
batean dauden garajeetako arrapalatik
liburutegira doan kale zatia, plazaren
luzapena izango da eta oinezkoentzako
baino ez da izango. Liburutegitik elizaren
atzeko aldera doan zatia barriz, ibilgai-
luzatuz asfaltatuko dute. ○

Bizi kalitatea hobetzeko

Nagusientzako Aiboa Eguneko Zentroa abian



Hainbat azpiegitura ditu Aiboa Eguneko Zentroak

Bihotz Sakratua erresidentziako behe-
ko solairuan, Udalak utzitako lokalean,
martxan da nagusientzako Foru Aldun-
diko Aiboa Eguneko Zentro barria. Igur-
ko enpresak kudeatuko du 30 lagunent-
zako toki duen gunea. Aurkezpenen,
Udal ordezkariak azpimarratu gura izan
zuten, zentro barriaren irekierak nagusien
eta euren senideen bizi kalitatean beste
urrats bat emateko aukera eskainiko diola
herriari.

Dependentzia egoeran dauden adine-
ko gizon-emakumei mantentze eta erre-
abilitazio zaintza eskaintzea eta, aldi bere-
an, bere ohiko inguruan bizitzen segitzen
ahalbidetzea da zerbitzu barriaren helbu-
ru nagusia. Horretarako, Eguneko Zen-
troak dituen 400 metro koadroetan hain-
bat zerbitzu eskaintzen dituzte: gosaria,

bazkaria eta askaria; zentrorra joateko ga-
rraio egokitua; zaintza pertsonala eta osa-
sun zaintza eta programa terapeutikoak
(dinamizazio soziokulturala, estimulazio
kognitiboa eta errehabilitazio fisiko eta
funtzionala).

Astelehenetik barikura 08:30etik
18:30era dago zabalik eta ondoko bald-
intzak bete behar dira zerbitzua erabili
ahal izateko: 60 urtetik gora edukitzea;
Getxon, Leioan, Berangon, Sopelan, Ur-
dulizen, Plentzian edo Gorlizen errolda-
tuta egotea; dependentzia mailaren az-
terketaren ondoren lortzen den Norbera-
ren Arreta Programaren aldeko ebazpena
eta erabiltzaileak Zentroan ez dagoen or-
duetan senideen laguntza edo gizarte la-
guntza duela bermatzea. Interesatuak Gi-
zarte Zerbitzuetan informatu daitezke. ○

BERDINTASUN KONTSEILUA SORTU DA

Udalerriko gizarte agenteei parte hartzeko
eta arautzeko toki eskaintzeko eta,
bereiziki, emakume elkarteek berdintasun
politikak jarraitu eta bultzatzen sortu
barri dute Berdintasun Kontseilua.
Aholkularitza eta partaidetza organoa da
eta II Berdintasun Planaren barruan koka-
tuta dago. Udal ordezkariak, Berdintasun
Foroan azken urtean parte hartu dutenen
ordezkari banak, emakume elkarteetako
ordezkariak eta emakume eta gizonean
arteko berdintasunaren alde behar egiten
duten elkarten ordezkariak osatuko dute
Kontseilua. Urtea sei aldiz bilduko dira.

MARTXOAN HASIKO DIRA PORTU ZAHARREKOAK


Martxo akabuan hasiko dira Algortako Portu
Zaharreko zabalgunea eta bere ondoan
dagoen oinezkoentzako gunea hobetu eta
egokitzeko lanak eta bi hilabetez luzatzea
aurreikusita dago. Etorkezunean bertan zer
izango den erabaki ez bada ere, behin
betiko proiektua egin arte lorategi
ingelesaren erako soropila, 30 zuhaitz 20
argi barri eta eserleku barriak jarriko dituzte.
Horrela, Ereaga eta Portu Zaharra artean
dagoen pasealekuari jarraipena eman gura
diote. Kultur Etxeko eta Jaietako ekitaldiak
ahalbidetzeko, argi-dorre bi jarriko dituzte;
itsasoaren parean dagoen pasealekua ere
zaharbarrituko dute.

KIROL IKASTAROETAN ESKAITZA HANDITUTA

Otsailetik aurrera izena eman daiteke barriz
ere Getxo Kirolakek antolatutako
ikastaroetan. Izan ere, eskari handia
zegoela ikusita, eskaintza zabaldu dute.
Guztira, 300 leku barri eskaintzen ari dira.
18 urtetik gorakoek spinning (100 plaza),
pilates (85 plaza), yoga (17 plaza) eta
aquagymen (17 plaza) artean aukera
dezakete; umeentzat saltoka, kiroltxiki,
txikidantza eta txikikarate daude eta
guztietan 21 plaza eskaini dituzte. Itxarote
zerrendan daudenean lehentasuna dute.

Info+: 94 404 51 51 / 94 430 80 70

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz


Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Mikel Lertxundi > eskultorea

“Harriak, burdinak eta egurrak sortzen duten orekatik poesia lortzen saiatzen naiz”



Galeako pasealekuan dago Mikel Lertxundiren eskultura

Orekaren eta poesiaren bilaketan, hiru material lantzen ditu Mikel Lertxundi (Berriatua, 1951) eskulturagileak. Ibilbide oparoa du; Euskal Herrian zein mundu zabalean kalean zein galeriatan ikusi ahal izan diren hainbat lanen egilea da. Udalak eskatuta, Gerra Zibileko, aurreko gatazka zibileko eta frankismoaren biktimak omentzeko eskultura jarri barri du Galeako pasealekuan, Aixerratik ehunka metrora. Hiru metroko luzera, 1,60ko zabalera eta metro biko garaiera du eta 6.000 kiloko pisua; aitaren oroitzapenak lagundu dio Lertxundiri oraingo honetan.

—Zelan definituko zenituzke zure arte-lanak?

—Nire artelanen ibilbideak orekaren bilakaera dauka oinarri. Harria, egurra eta burdina erabiltzen ditut beti; horrekin sortzen den orekatik poesia lortzen saiatzen naiz. Material bakoitzaren nortasuna agertuz beti; bakoitzak bere forma eta posizioa du oreka lortzeko. Forma minimalak dira: harria lauki simple bat, burdina pieza bertikal laukizuzena eta egurra kurbadura. 40 bat urtetan bide hori jorratu dut. Azkenengo urte

mordoxka batean baita haizea ere, ura eta sua; Lurrak dituen hiru elementuak bezala hartu ditut harria, egurra eta burdina.

—Orain 40 urte, zergatik erabaki zenuen hiru material horiek aukeratzea? —Nik forma hutsetik lan egin izango banu, beste eskultore batzuk bezala, orduan harriagaz nahiko izango nuke, material tipo bat hartu eta horri forma eman. Baina nik formatik haratago gura nuen zerbait. Forma nahiko landua zegoen Euskal Herrian nire ustez, eskultura

onak izan ditugu eta gauza estetiko hutsa nahiko landuta zegoen. Bizitza bat lortu nahi nuen material horiekaz, bizitza poesia bezala ikusita; esaldi ezberdinak hartu eta bertso bat sortu. Egurra beroa da, burdina potenziaren ikurra eta harriak oinarria ematen du.

—Zein izan da zure inspirazio iturria Getxoko eskultura egiteko?

—Normalean, egia esan, ez naiz eskultura orogarrien zaleegia. Baina, kasu honetan, baietz esan nuen nire aita ere frankismoaren biktima izan zelako eta aitari omenaldi txikia egitea erabaki nuen.

«Burdinak askatasuna defendatu zutenen indarra agertzen du»

Gainera, toki polita da, parke berde batean; ez da kale bazterra. Eskultura bezala ondo funtzionatzen du toki horretan.

—Zertan datza zuk egindako lana?

—Nire linea jarraituz hiru material erabili ditut. Oinarria harrizko liburuak hartzen du eta barrukoa egurrez eta burdinaz egin dut. Burdinak askatasuna defendatu zutenen indarra agertzen du eta egurrak euren sentimendua. Liburuak irekita dago, eskultura irekia izatea gura dudalako; ikusle bakoitzak oroimenean duenaren arabera ikus dezan. Leku horretarako egindako eskultura da.

—Zein artelan duzu orain esku artean?

—Martxoaren 8an Bilbon erakusketa bat inauguratuko dut Lumbreras galerian (Henao, 3). Bertara, formato ertaineko eta txikiko lanak eroango ditut. Maiatzean Madrilera noa beste erakusketa batera; orain buru-belarri nabil azken horregaz, erakusketarako argitaratu behar den katalogoa egiten. ○

Info+: www.lertxundi.eu

Josi eta josi, sarea

Berbakafea antolatu dugu hilaren 25erako Sarea Josten **ekimeneko partaideok**



Joan den urteko Sarea Josten-eko erakusketa

Ekimen irekia, herrikoia eta horizontala. Horrela definitu genuen 2010ean abiatutako “*euskararen aldeko auzolana*”; Sarea Josten ekimenak 30 eragiletik gora bildu zituen joan den urtean: mendi taldeak, ikastetxeak, euskaltegiak, komunikabideak, dantza taldeak e.a. Helburu xumeagaz hasi ginen sarea josten: “*Euskararen alde gabiltzanok, euskaraz lan egiten dugunok eta euskaldunok elkar ezagutzea eta elkarrekin lan egitea*”. Ikastaroak, bertso-saioak, mendi ibilaldiak, erakusketak, hitzaldiak eta herribazkariak bete zuten egitaraua iaz.

Berbakafea da 2011rako proposame-

netan lehenengoa. Otsailaren 25erako deitu ditugu parte hartzaileak (lekua zehazteke dago). Hiru orduko saioa egingo dugu Sarea Josten ekimenaren eta Getxon euskarak bizi duen egoerari buruz hausnartzeko. Jasotako iritziakaz kaleratuko dugu testu bateratu bat: Sarea Josten-en manifestua.

Horrez gain, herrian euskaraz antolatzen diren ekimenen barri emango duen *Agenda bateratua* eta herriko euskaldunak bilduko dituen txapelketa bat egiteko asmoa ere badugu. Har ezazu orratza eta ekin sarea josteari! ○

Info+: www.sareajosten.com

GIDABAIMENA EUSKARAZ ETA INTERRAILA IRABAZI

Auto gidabaimena egiten ari diren lagunak agiria euskaraz egitera animatzeko kanpaina abiatu zuen iaz Udaleko Euskara Zerbitzuak. Horretan Getxoko bederatzik autoeskoletan parte hartu zuten eta Udalak 1.232 euroko dirulaguntza eman zien. Erandiogaz eta Uribe Kostagaz batera burututako kanpainaren barruan, euskarazko 890 esku-liburu banatu zituzten. Hiru gazte animatu ziren iaz azterketa euskaraz egitera eta horien artean Interrail bidaia zozketatu zuten. Getxoko gazte batek irabazi zuen eta otsailaren 15ean jasoko du saria.

SENDI EGITASMOA TAILERRETIK TAILERRERA

Sendi egitasmoaren barruan hainbat ikastaro egiten ari dira Egizuko lagunak otsailean. Hilaren 23rako eta 24rako Perkusio tailerra antolatu dute 6-12 urte bitarteko umeentzat. Horretan parte hartu gura dutenek hilaren 21a baino lehen izena eman beharko dute. Bestalde, otsailaren 22an eta martxoaren 1ean, “Zer ikusi, ha ikasi” ikastaro teoriko-praktikoa egingo dute gurasoentzat eta hezitzaileentzat San Nikolas Ikastolan, 17:30etik 19:30era. Hilaren 25a arte izena eman daiteke azken horretan.

IKASKUNTZA-GUNEA GETXO KIROLAK-EN

Kirolaren, aisiaren, osasunaren eta denbora libreari buruzko proposamenak jorratzeko diziplina anitzeko ikaskuntza-gunea sortu barri du Getxo Kirolak-ek, GK izenpean. Jarduera fisikoagaz eta osasunagaz lotutako hitzaldiak antolatuko dituzte ekimenaren barruan. Otsaila hasieran Jose Maria Amorrortu eta Edorta Murua Athletico Madrillgo harrobiko arduradunek eta Antxon Elosua yoga irakasleak eskaini zituzten hitzaldiak. Getxo Kirolak-en asmoa da hileroko hitzordua jartzea. Datozen hitzaldietan ondoko gaiak landuko dituzte: jarduera fisikoaren garrantzia 60 urtetik aurrera eta nerabazeroan kirola uzteko arrazoiak. Jarduera guztiak doakoak izango dira.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Fernando Olabarrieta > psikologoa eta Etxadi taldeko kidea

“Seme-alaben hezkuntzan eguneroko bizitzan sortutako zalantzak eta arazo txikiak argitzen ditugu”

Familiatzako Orientazio Zerbitzua eskaintzen du iaztik Udalak. Etxadi taldeko psikologoek jasotzen dituzte gurasoak, seme-alaben hezkuntzan sortzen zaizkien zalantzak argitzeko eta laguntzeko asmoz.

—Familiatzako orientazio zerbitzuagaz jarraituko du Udalak, zertan datza?

—Unibertsitateko gure ikerkuntzatik jendarteari pasatzen diogu ezagutza, ikertzen dugun jakintza hori aplikatu dadin. Familiaren psikologia ikasgaiari hasi ginen Enrike Arranz eta biok ikertzen; EAEko 500 familiatik gora ebaluatu genituen. Familiak, apur bat galduta zeuden eta eguneroko gauzetarako orientazioa eskatu zuten, batez ere gazteek. Bestalde, guraso eskola eredu klasikoa gainditu gura genuen. Horien osagarri, orientazio zerbitzu hau eratzea pentsatu genuen, teknologia barriak baliatuz. Erakundeak azalduak egiten dugu, oraingoan Leioako Udalgaz, eta Udalerriko familiak eskubidea daukate zerbitzua erabiltzeko.

—Zelan erabiltzen da?

—Batez ere korreo elektronikoz egin ohi dituzte kontsultak eta galderak. Telefonoz



Internetez jar zaitezke harremanetan orientazio zerbitzuagaz: www.etxadi.org

ere bai, baina gutxiago. Posta arruntez ere egin daitezke galderak. Seme-alaben hezkuntzan eguneroko bizitzan sortzen zaizkien zalantzak eta arazo txikiak argitzen ditugu. Bakoitzak bere kezka azaltzen digu eta erantzun pertsonalizatua ematen diogu. Kontsultak anonimoak dira.

—Zer gairi buruz galdetzen dute?

—Egunerokoan sortutako ohiko zalantzak dira, horiek argitzea da helburua. Berbarako, haurtxoari pardela zein adina-

gaz kendu, zein egoeratan, loagaz edota jatorduetan sortutako arazoak, ordezkotza zaintza nola bideratu behar den, e.a. Nerabeen kasuan, haiekaz zelan komunikatu galdetzen dute, arauak nola ezarri, gaueko urteerak, drogen kontsumoa, sexu hezkuntza, e.a. Arazoa larriagoa bada, bestelako zerbitzuetara bideratzen dugu. Baina prebentzioa da zerbitzuaren bokaziorik handiena eta horretara animatzen ditugu gurasoak. ○

Ondizdorrea dotoretuz

Ondizko dorrea berreskuratuko du Udalak, INEMek bertan behera utzi ostean



XVI. mendeko dorrea dugu Ondizkoa

2009an hasi ziren berreskuratzen XVI. mendeko Ondizdorrea. Geldiune baten ostean, Udalak bere gain hartu du egitasmoa eta bururaino eroango du aurten. Ondoren, herriko elkarte batek erabiliko duela jakinarazi dute.

INEMen ikastaroetan parte hartu zuten hainbat lagunek lan egin zuten jatorrizko eraikuntza berreskuratzeke duela urte bi, egitasmoaren lehen fasean; zurgintza, igeltserotza eta hargintza ikasleek kendu zituzten urteak pilatutako eraikin zatiak, eta hormak garbitu zituzten. Baina INEMek ez zuen jarraitu bigarren fase batez, eta azkenean, Udalak bere gain hartu du berreskuratzea. Urtea amaitu orduko amaitu gura

dituzte lanak eta 600.000 euro gorde dute lanotarako aurtengo aurrekontuan. Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza ere jaso du Udalak.

Adituen arabera, Ondiz dorretxea XVI. mendekoa da, 1515 ingurukoa, orain arte zaharragoa zela uste bazen ere. Baina dorretxea baino, landa-jauregia da, Leioako familia aberats batena.

Leioako eraikin zaharrenetarikoa da, lehenengo solairu biek 84 metro koadrona dituzte, eta hirugarren solairua, ganbara da. Guztira 10 bat metro neurtzen du eraikinak. Aurrekariak ere badaude, berbarako, Kortesenabarri baserria barritu zuten duela hiru urte eta Aranzadi elkartearen egoitza ipini. ○

JAZZ EMANALDIEN ARGAZKIAK IKUSGAI

Bits of Jazz argazki erakusketa ipini dute Kultur Leioan eta otsailaren 27ra arte, erakustaretoan. Jose Hornaren argazkiak dira, “jazz zati edo puska”. Kamera digitalagaz hartutako irudiak baina, “argazkilarien ideiak, pertzepzioak edo aukeratutako uneak ezberdinak al dira kamera digitalak erabiltzeagatik?”. Ezezkotan dago Horna. Haren iritziz, azken helburua ez da kode bitar bat edo erreazio fotokimiko bat, hauxe baizik: “argitasun-une baten, itzal baten edo, kasu honetan, musikaren adierazpen subjektiboa. Hots, komunikazio bizi eta zuzena lortzeko ahalegina. Jazza bezala...”.

PIPING IKASTAROA INGENIARIENTZAKO

Langabezian dauden ingeniariarentzako Piping ikastaroa eskainiko du Behargintzak, eta izena eman daiteke otsailaren 26ra arte. Teoria eta praktikak emango dituzte 500 orduko ikastaroan. Instalazio industrialen diseinu eta eraikuntzari buruzko gaiak zein instalazioen diseinuan jorratu beharreko faseak landuko dituzte. Behargintzatik adierazi dutenez, edukiok ez daude sartuta inongo ikasketa planetan, “nahiz eta oso baliagarriak izan sektore askotan”.

Behargintza: Mendibile kalea, 3

ZORIONAK LEIOA WATERPOLO!

Euskal Herria Kopa irabazi du Leioa Waterpolo emakumeen taldeak, bigarren urtez jarraian. UPNA Nafarroako Unibertsitate Publikoko taldeari gailendu zitzaizkion leioztarrak urtarrean. Leioa Waterpolo 11 urte dauka eta dagoeneko maila guztietan lehiatzen da. Entrenatzaile, tekniko eta kirolarien artean osatzen dute ehun lagunetik gora dituen taldea, horien artean emakumeetan irabazleak. Lan bikaina egiten dabilta, beraz, zorionak eta aurrera!

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



Abant

Basarrate 20 lonja 48991 (Alqorta-Getxo) Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

- Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa
- Ikaskuntzaren zailtasunak
(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)
- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

ALFONSO C. VALLEJO > Tartanga ikastetxeko Komunikazio, Irudi eta Soinu irakaslea

“Spot Asteko arrakastarik hadiena izan da ikasleek elkarren artean koordinatzen jakin dutela”

Bigarren Spot Astea egin dute Tartanga ikastetxean hil hasieran. Komunikazioa, Irudia eta Soinu saileko 60 ikaslek parte hartu dute eta 18 publizitate iragarki grabatu dituzte. Alfonso C. Vallejo koordinatu du ekimena, saileko gainontzeko irakasleak batera.

—Ikasketa programaren barruan egin duzue Spot Astea, baina zertan datza?

—Azterketez gainera, atal praktikoa egiten dute gure ikasleek eta akabuko notan eragina dauka, beraz, ikasketen parte da ekimen hau. Baina ekimen barrizalea da; izan ere, hiru heziketa-ziklo desberdinetako lehenengo mailako ikasleek batera parte hartzen dute, elkarregaz lan egiten dute iragarkiak sortzeko; Komunikazioa, Irudia eta Soinu saileko hiru zikloak dira: Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen errealizazioa, Soinu eta Irudi laborategia. Bakoitzak bere zeregina dauka: Soinukoek gidoiak egin dituzte, errealizaziokoek praktikara eroan dituzte gidoi horiek eta irudikoek egin dituzte *making-off* delakoak argazkiak.

—Taldetan egin dituzte iragarkiak?

—Hori da. Lau talde osatu ditugu eta horietako bakoitzak egin du lauzpabost



Antonio Perez eta Alfonso L. Vallejo Irudi eta Soinu irakasleak

iragarki. Ziklo desberdinetako 12 lagunek osatu dute talde bakoitza. Spot Astea zehar grabatu eta muntatu dituzte 18 iragarkiak, eta barikuan aurkeztu guztion aurrean. Ekitaldian sari sinbolikoak ere banatu zituzten: ikasleek erabaki dute maila bakoitzean zein izan den onena, bozken bitartez.

—Gai desberdinetako ikasleek elkarren artean lan egiten ikastea da helburua?

—Baita ere. Horregatik abiatu genuen, baina oso gustuko dutelako ere bai. Ez

dira maila handiko produktuak, baina esparru honetan lehenengo esperientzia dute eta asko ikasten dute; 25 segundoko iragarkiak izan behar dute eta funtzionatu behar dute: musika izan behar dute, ulertu behar dira eta biziak izan behar dute.

—Emaizta ona izan da?

—Arrakastarik handiena izan da parte hartu duten ikasleak adi-adi egon direla iragarkiak estreinatzean, eta elkarren artean koordinatzen jakin dutela. ○

Lurpeko bidea Lutxanan

Altzagatik Lutxanarako bideko **bidegurutzean** lurpeko **pasabidea** egingo dute oinezkoentzat



BI-735 eta BI-711 errepideen arteko bidegurutzean egingo dute lurpeko pasabidea

Lutxana eta Alzaga auzoen artean ibiltzea ez da txantxa, gaur egun arriskutsua da oinez gurutzatzea bidegurutze handia. Horregatik, lurpeko pasabidea egingo dutela iragarri dute. Urtea amaitu baino lehen. Lanak bidegurutzearen forma ere aldatuko ei dute, “*gidarientzat ere seguruago izan dadin*”.

Baina pasabidea egiteko aldameneko lur batzuk desjabetuko ei ditu Udalak. Bizkaiko Aldundiak egingo ditu lanak ondoren, eta 796.545 euro inbertituko du.

Eusko Jaurlaritzak baimendu beharreko nahizeko prozedura horren bitartez,

960 metro koadroko lurzorua eskuratuko luke Udalak, eta Aldundiaren esku utzi; bidegurutzearen aldeak hartzen ditu lur eremu horrek. Udalak eta Aldundiak 2010eko martxoan egin zuten hitzarmena.

Pasabidea oraingo bidegurutzetik metro batzuk gora kokatuko dute, Asuarantz. Sasi-tunela izango ei da, izan ere, errepidearen aldapa apur bat altxatu gura dute eta malda baliatu tunela ipintzeko. Horrela, lurraren arrasean lotuko da pasabidea eta oinezkoek ez dute eskailerarik igo eta jaitsi beharko. Barruan bideo bidezko zaintza sistema jarriko ei du Udalak. ○

HOTZAREN HABANERAK OTSAILAREN 26AN

Iritsi da aurtengo Habanera jaialdia, zortzigarrena. Mendibaiarte abesbatzak antolatutako jaialdia otsailaren 26an izango da Alzaga Kiroldegian, ohiko legez. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da, toki guztiak bete arte. Mendibaiarte Abesbatzagaz batera kantatuko dute Astrabuduko Abots Alaia Abesbatzak, Erandioko Musika Bandak eta Alzaga Abesbatzak Habanerak abesteko ohiko sasoia iraila da, baina jaialdi hau neguan da, hotz garaian. Izan ere, arrantzaleen senideek gehien sufritzen dute neguan, tenporalakaz. Beraz, belarriak gozatu!

JAZZ-FUNKY ETA DANTZA MODERNOA

Tirante Plataformak jazz-funky eta dantza modernoa ikastaroa egingo du hil honetako 17tik aurrera, Lutxanako eskoletan. Naiara Santacoloma arituko da irakasle egunetan, 20:30etik 22:00etara. Hilean 20 euro ordaindu behar da parte hartzeko, baina otsailean hilabete erdia besterik ez dute kobratuko. Gainera, klase solteak ere har ditzake astero joan ezin duenak, klase bakoitza 6 euroan. Izena eman lehenbailehen, plaza mugatuak dira eta!

Izena emateko:
plataformatirante@yahoo.es
655 73 24 84 edo 688 61 86 36

6 HILABETERAKO LANA 15 GAZTERENTZAT

Langabezian dauden 34 urtez azpiko 15 gazte kontratatuko ditu Udalak sei hilabeterako, +Euskadi 2009 programaren bidez. Hiru zerbitzutan lan egingo dute umeen eta adinekoen behar sozialak asetzen, aisialdirako programa barrietan: bi ludotekatan, adinekoentzako jarduera ziklotan eta belaunaldien arteko udaleku irekietan. Bestalde, herriko 25 gizon langabe ere kontratatu ditu udal brigadako langileen lana osatzeko.

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

EUSKAL ARATUSTEEN ERAKUSKETA KURTZION

Euskal Herriko aratuste garrantzitsuenen erakusketa hartuko du Kurtzio Kultur Etxeak otsailaren 23 arte. Uribe Kosta Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak sustatu du Aharri Kultur Talde nafarrak antolatzen duen erakusketa. Bertara gerturatzen denak aratusteetako 18 pertsonaia ezagutzeko aukera izango du: Akerra, Momotxorro, Ziripot, Kotilungorri, Lamia, Zezengorri, MielOtxin, Perretzaile... Bestalde, Uribe Kostako aratusteei buruzko berbaldia izango da otsailaren 23an Kurtzion, 19:30ean. Berbaldia ez ezik, aratustekaz lotura duten tailerrak ere antolatu dituzte kultur etxean, otsailaren 26an, bai goizez bai arratsaldez.

ARGAZKIGINTZA TAILERRA SEKEKO GAZTETXEAN

Tailer barriak antolatzen jarraitzen dute gazte asanblada sopoloztarreko kideek. Otsailaren 26an eta 27an, esaterako, argazkigintza tailerra izango da Sekeko errotan, goizez. Bitartean, astelehenero alboka eta eguaztenero txalaparta jotzen jarraitzen dute gazteek. Gainera, astearen azken egunean "Domeka Beroak" izaten dituzte Sekekon: hanburgesak, giroa, pelikulak.. Otsailaren 20an "Hunger" film irlandarra eskainiko dute. Bestalde, Plaza Beltza kulturuneak "El Segundo Desembarco" dokumentalaren emanaldia antolatu du, otsailaren 24an, 19:00etan. Zine-foruma elkartearen egoitzan izango da: Akilino Arriola kalearen 59. zenbakian, Larrabasterran.

"ECOGRAFIAS" ANTZEZLAN BARRIAREN ESTREINALDIA

Karmele Jaio idazlearen testuak oinarri dituen antzezlaren aurre-estreinaldia izango da Kurtzion otsailaren 23an. 20:00etan hasiko da emanaldia, eta antzezlana gozatu gura duenak 6 euro ordaindu beharko du. Obrak emakumeak eta amatasuna du hizpide.

Haur eta gazteentzako

aisialdi guneak izango dira Ludoteka eta Gaztelekua. Martxoaren 1ean zabalduko dituzte



Martxoaren 1ean irekiko ditu ateak Ludotekak eta Gaztelekua

Kurtzio kultur etxea haur eta gazte- txoz beteko da martxoaren 1etik aurrera. Egun horretan zabalduko dituzte Ludoteka eta Gaztelekuaren ateak, eta herriko txikienek hainbat ekipamendu izango dituzte eskura.

Ludoteka 4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da, eta erabili ahal izateko beharrezkoa izango da Sopelan erroldatua egotea. Astelehenetik zapatuta eskainiko du zerbitzua Ludotekak: astean zehar arratsaldez - 17:00etatik 20:00etara- eta zapatuetan goiz zein arratsaldez. Erabiltzaileen

txandak gurasoen batzar egunean zehaztuko dituzte: otsailaren 22an izango da, 19:30ean, Kurtzion. Izena emateko epea otsailaren 15era arte egongo da zabalik.

Gaztelekuari dagokionez, zerbitzua 13 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta egongo da. Ludoteka lez, astelehenetik eguenera 17:00etatik 20:00etara zabalduko ditu ateak. Baina bariku eta zapatuetan Gaztelekua goiz eta arratsaldez erabiltzeko aukera izango dute herriko gaztetxoek: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00ra. Ondo pasa! o

Rafa Martin > Sustrai Beltza musika elkarteak kidea

"Musikaren bidez mota guztietako jendea lotzea da elkartearen helburu nagusia"



"Berdintasuna eta justizia" oinarri duten ekintzak antolatu gura ditu Sustrai Beltzak

Udazkenean elkarte barria jaio zen Sopelan: Sustrai Beltza musika elkarteak. Herriko bost gazte osatzen du, eta "roots reggae"-aren jarraitzaileak diren arren, beste musika estilo batzuk ere sustatuko dituzte. Otsailaren 5ean disko eta liburu azoka antolatu zuten Zipiriñen, Gazte Bulegoagaz batera, eta hurrengo hiletan ekimenak antolatzen jarraituko dutela iragarri dute.

—Zein eremu landuko du Sustrai Beltza musika elkarteak?

—Musikaren bidez mota guztietako jendea lotzea da elkartearen helburu nagusia. Elkarte bost kide gara, eta hiruk guk eraiki dugun "Sound System" bat dugu; horren bidez adin eta kultura ezberdineko jendearengana heldu gura dugu.

—Musika estiloren bat landuko duzue bereziki?

—Batez ere "roots reggae"-aren jarraitzaileak gara. 70. hamarkadako musika da, eta letrek iraultzari buruz berba egi-

ten dute: eskubide falta, klase desberdintasuna... Musika baino askoz gehiago da, aldarrikapena eta kultura ere bada. Horrexegatik elkartearen izena: "Sustrai Beltza". Hala ere, beste proposamen eta ideiei ere ateak zabalitzen dizkiegu, edo bestelako musika estiloei ere.

—Ekimenen bat antolatuko duzue hurrengo hiletan?

—Disko eta liburu azoka ostean, kultura beltzaren inguruko hilabete bat antolatzeko pentsatu dugu, aste bakoitzean arra-

«Roots reggaea musika baino askoz gehiago da: kultura, aldarrikapena...»

za beltza defendatu duen pertsona baten bizitza kontatuz. Izan ere, ez ditugu bakarrik "roots reggae" sesioak antolatu, ekimen kulturalak ere antolatu gura ditugu. Gainera, herriko beste elkarte batzuek harremanetan jartzeko asmoa dugu, berdintasuna eta justizia oinarri duten ekintzak antolatzeko. o

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Aritz Aresti > Tai-txi irakaslea

“Elkarte barriak tai-txia landuko du nagusiakaz, eta txinatar arte martziala gazte eta umeakaz”

Tai-txiaren arteak izen berezia jasotzen du Uribe Kostan: Aritz Aresti. Sopeloztarrak eskualdeko hainbat herritan tai-txi eskolak ematen ditu. Berangon, Guraso Elkarteko kideakaz batera tai-txi elkarte sortuko dute hurrengo hiletan. Wushu-kungfu Euskal Herriko Federakundeko Bizkaiko presidente ere bada Aresti.

—Tai-txia modan ei dago, eskolak eskaintzen dira eskualdeko herri gehienetan...

—Bai, duda barik, 300 bat ikasle baino gehiago egongo dira egun tai-txi eskolatan Uribe Kostan. Gainera, ez dut uste egun batetik besterako moda denik, tai-txia ez delako kirol arrunta, bizitzeko era baizik, eta horren atzean filosofia dago.

—Mugimenduak ez ezik, filosofia ere ikasten duzue eskolatan?

—Ezinbestekoa da tai-txiaren filosofia jakitea, bestela ez dakizu gorputza zelan mugitu behar duzun. Barrutik sentitu behar den zerbait da.

—Berangon tai-txi eskolek arrakasta handia izan dutenez, elkarte sortuko duzue, ezta?

—Orain dela pare bat hilabete hasi ginen eskolak ematen, ikastetxeko Guraso Elkartearen eskutik. Jende ugari animatu



Wushu-kungfuko nazioarteko txapelketan parte hartuko du Euskal Herriko selekzioak

da, eta denon artean elkarte sortzea otu zitzagun. Nagusi, gazte, eta haurrentzako taldetxo bat sortu gura dugu.

—Elkarteak tai-txia bakarrik landuko du?

—Tai-txia batik bat helduei zuzenduta izango da, estilo leunak direlako. Gazte eta haurrakaz, txinatar arte martziala edo wushu-kungfua landuko dugu, ikusgarriagoa delako. Bestalde, urtean zehar ekimenak egiteko asmoa dugu:

medikuntza txinatarrari buruzko erakusketak, hitzaldiak...

—Euskal jendartea tai-txiaren informatuta dagoela uste duzu?

—Ez. Iaz, esaterako, wushu-kungfuko Euskal Herriko selekzioa munduko txapelketaren kategorian batean txapelduna izan zen, eta ez da ia ezer entzun.

Maiatzean ospatuko da barriro, eta aurrekontuak uzten badigu, Euskal Herriko selekzioa bertan egongo da. ○

Aintzane Zabala > Ahotsa zaintzeko yoga ikastaroaren irakaslea

“Gorputzaren mugimenduaren bitartez oinarrizko soinuak askatzen saiatzen gara”

Iraunkor abesbatzak antolatuta, ez-ohiko ikastaroa hasi da Goñi Portalen. Yogaren bidez ahotsa zaindu gura duenak eguen eta zapatuetan izango du aukera, Aintzane Zabala irakaslearen eskutik. Ikastaroa hasita dagoen arren, interesa duenak izena emon dezake oraindino. Baina Zabalaren ustez, ikastaroa egiteko beharrezkoa da “gutxiene-ko interesa eta kuriositatea” izatea.

«Gorputza artikulazio multzoa da, eta bizitako guztia gordetzen du»

—Yoga ikastaroa bai, baina ahotsa zaintzeko yoga ikastaroa ez da ohikoa...

—Nik “soinuaren yoga” deitzen diot, soinua gizakion oinarrizko adierazpena delako, arimaren sakonetik urteten den komunikazioa. Txikitik, berbetan hasi aurretik, zezeltzen hasten gara, eta gero fonemak sortzen ditugu. Baina batzuetan, soinu batzuk ez ditugu kanpora ateratzen, ez diogu gure buruari uzten soinu horiek kanpora ateratzen, eta gure gorputzean korazak eta zorrotasunak sortzen dira.

—Eta hori da ikastaroaren bidez kontpontzen saiatzen zaretena?

—Bai, urteetan zehar komunikatu bako soinuek minak eragin ditzaketelako gorputzean. Gorputzaren mugimenduaren bitartez soinua askatzen hasten gara; oinarritik, bokalak askatzen, arnasketaren bidez tentsioak kanporatuz. Gorputza artikulazio multzoa baino ez da, eta bertan bizitako guztia gordetzen da. Baina ahotsa gorputzetik ateratzeko, lehenengo gorputza mugitu behar dugu.

—Arnasketak, orduan, berebiziko garrantzia hartzen du horretan.

—Bai, arnasketa kontrolatu behar dugu.



Aintzane Zabala, Goñi Portalen

Sudurzuloen bidez, sabel eta sorbaldatik arnasketaren bultzada sortzen da, eta bultzada hori zilborrera zuzentzen du. Zilborra da, hain zuzen, gorputzaren indarraren erdigunea. Bertarik garatu gara: amaren sabelean geundenean puntu horretatik elikatu gara, arnas egin dugu... Tentsioan gaudenean, zilborretik lasai gaitetze, bertatik arnas egin, horren kontzientzia hartu, eta apurka husten joan.

«Ahotsa arimaren sakonetik urteten den komunikazioa da»

—Egunerokotasunean ez dugu arnas egiten modu egokian?

—Inertziaren bidez bizi gara, egunean zehar hamar minutuko kontzientzia izaten dugu. Gure arnasketaren jakitun izan behar dugu, oinetatik bururainoko kontzientzia hartu, hiru edo lau minutu hartu behatzeko. Azken batean, gure gorputzaren ikuskatzaileak baino ez gara, gure gorputza entzun eta sentitu behar dugu. Eta arnasketaren bidez, gure gorputza behatzean, modu natural batean hobeto sentituko gara. ○

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI



Bidebarri 27. behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Turkaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

MARTXOAN ABIATUKO DA "AHOLKUDROGA"

Drogen inguruko zalantzak argituko ditu "Aholkudroga" zerbitzuak, Uribe Kostako Mankomunitateko Drogamenpekotasun zerbitzuaren eskutik. Aholkularitza zerbitzua doakoa izango da, eta hileko lehen astelehen eta eguenetan egongo da aukera bertara joateko: astelehenetan Sopelan eta eguenetan Plentzian, Mankomunitateko lokaletan. Ordutegia arratsaldeko 15:30etik 18:00etara izango da. Informazio gehiago: preven@uribekosta.org edo 94 657 88 10 telefonoan.

INTERNET ERABILTZEKO OINARRIZKO IKASTAROA

Oraindik ez dakizu saretik ganoraz ibiltzen eta ezin duzu UK-ren webgunea bisitatu? Plentziako KZgunean 10 orduko oinarrizko ikastaroa antolatuta dute horrelako egoerei aurre egiteko. Izen-emotea otsailaren 14an hasi eta 18an amaituko da, Udal liburategian. Eskolak martxoaren 7tik 11ra arte izango dira, eta talde bakoitzean asko jota lau pertsona egongo dira.

MURIOLA HONDARTZA, OINEZKOENTZAKO

Kotxe eta furgonetek ezin izango dute aurrerantzean Barrikako Muriola kalatxoraino heldu. Hondartzara heltzen den errepidea oinezkoentzako eta txirindularientzako bihurtu du Udalak, 102.000 euroko inbertsioaren ostean. Bidean hobekuntzak egin dituzte, lehen zeuden zuloak estaliz.

GORLIZ

Lonjak etxebizitzetan bihurtzeko aukerea, zabalik



Plentziako portu aurreko kalean aurreikusituz dituzte etxebizitza barriak

Andra Mari Axpe plan partzialaren eraldaketa zehatzaren bitartez, lonjak etxebizitza bihurtzeko aukerari ateak zabaldutuz dizkio Gornitzko Udalak. Plentziako portuaren aurreko kalean sortuko lituzkete etxebizitza barriak, Plentziaren eta Gornitzen arteko mugan. Etxebizitzek prezio tasatuak izan beharko dituzte ezinbestean: metro koadro bakoitzaren prezioa ezin izango du Babes Ofizialeko Etxebizitza baten 1,7% altuagoa izan.

Lokala etxebizitza bihurtu gura du-

nak idazkia aurkeztu beharko du Udaletxean. Horren ostean, Udalak hilabeteko epea zabalduko du, interesa duten herritarrek izena emon dezaten. Baina zerrendetan agertzeko beharrezkoa izango da hainbat baldintza betetzea: Etxebideko zerrendan agertzea, Gornitzen hiru urte baino gehiago errol-datuta egotea edo Gornitzen hamar urte baino gehiago bizitzea, eta gutxienez urtero eskatzaileak 15.050 euroko errenta jasotzea. ○

Ots. 15 - Ots. 28

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Zeramikazko eskultura.** Algortako Kultur Etxeko aretoan. Otsailaren 19ra arte.

PLENTZIA

► **Intervida.** Goñi Portalen. Otsailaren 28ra arte.

SOPELANA

► **Espainiar multinazionalak Amerika Latinan.** Plaza Beltza Kulturgunean. Martxoaren 11ra arte.

ZINEMA

LEIOA

► **Zigortzaileak.** Kultur Leioan. Otsailaren 19an eta 20an, 17:30ean.

GETXO

► **Megamind.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Otsailaren 20an, 17:00etan. 2,10 euro.
► **Sicko.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Otsailaren 25ean, 21:00etan. 2,90 euro.

SOPELANA

► **Hunger.** Sekeko Gaztetxean. Otsailaren 20an, 18:30ean.
► **El segundo desembarco.** Plaza Beltza Kulturgunean. Otsailaren 24an, 19:00etan.

URDULIZ

► **Red.** Kultur Etxean. Otsailaren 26an, 20:15ean.

BERANGO

► **Jack, Amazonaseko erregea.** Berango Antzokian. Otsailaren 20an, 17:30ean.
► **Ahmed, Alhambra printzea.** Berango Antzokian. Otsailaren 27an, 17:30ean.

Torrene Aretoan ikus daiteke erakusketa

► **Erakusketa**
Kapelak eta kapelagintza garaikidea Algortan
Erakusketa bitxia dakargu zenbaki honetan agendara, izan ere, 200 urtetako kapelagintzaren historia eta bilakaera ezagut daiteke Algortan otsailaren 27ra arte, Torrene aretoan, *Kapelak eta kapelagintza garaikidea* erakusketan. Kapelagintzaren historia gainera, hainbat garaitako ehun bat kapela ikus daitezke. Mota desberdinak eta ospetsuenak aukeratu dituzte, baita tradizioak jasoak eta egungo ereduaren mugari izan zirenak ere. Kapela luzea, *Fedora* modelo klasikoa, Sabino Aranaren garaikoa, txapelokerra, e.a. Horregaz batera, kapelagile baten tailer-denda baten erreprodukzioa ipini dute, ia desagertu den lanbidea ezagutzera emateko.

• **Non:** Algortako Torrene Aretoan • **Noiz:** Otsailaren 27ra arte

MUSIKA

ERANDIO

► **Konbo entzunaldia.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Otsailaren 17an, 19:00etan.
► **VIII. Habanera jaialdia.** Altzaga Kiroldegian. Otsailaren 26an, zapatuan, 20:00etan. Doan.
► **Dantzaldia orkestragaz.** Altzagako azoka zaharrean. Otsailaren 27an, domekan, 17:30ean.

GETXO

► **The Borthrood.** Areetako Glass Kafean. Otsailaren 17an, 20:00etan. Doan.
► **Los fastuosos de la rivera.** Algortako The Piper's Irish Puben. Otsailaren 24an, 20:00etan. Doan.

LEIOA

► **The Troublemakers Blues Review.** Kultur Leioako Ambigun. Otsailaren 18an, 22:00etan. 6 euro.

ANTZERKIA

GETXO

► **Goibel haurrentzako musikala, Golden Apple Quartet.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Otsailaren 27an, 18:00etan. 4 euro.

SOPELANA

► **Ecografias.** Kurtzio Kultur Etxean. Otsailaren 19an, zapatuan, 20:00etan. 6 euro.

BERANGO

► **Xurdin.** Berango Antzokian. Otsailaren 19an, 18:00etan.

ERANDIO

► **Utopia.** Altzagako azoka zaharrean. Otsailaren 20an, domekan, 19:30ean. 5 euro.

LEIOA

► **Vaya semana.** Kultur Leioan. Otsailaren 25ean 20:30ean eta 22:30ean, eta 26an 20:30ean. 15 euro.

GORLIZ

► **Peio Añorga ipuin kontalaria.** Ikastetxean. Otsailaren 26an, 18:30ean.

BESTEAK

ERANDIO

► **Urteera Lekeitiora, Astrabuduko Fotoclubegaz.** Otsailaren 20an, 08:00etan taxi geltokian.

SOPELANA

► **Hitzaldia: Uribe Kostako inauteriak.** Kurtzio Kultur Etxean. Otsailaren 23an, 19:30ean.
► **Argazkigintza tailerra.** Sekeko Gaztetxean. Otsailaren 25ean eta 26an, goizez.

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)


Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Gora eta behera

Pikete informatiboa gerturatu, pertsiana jaitsi; piketea urrundu, pertsiana igo... gora eta behera ibili ziren hainbat dendatako pertsianak urtarrilaren 27an. Gehiengo sindikalak pentsioen erreformaren aurkako greba orokorra deitu zuen egun horretarako, eta pertsianek lez, lanuzteek jarraipen gorabeheratsua izan zuten Uribe Kostan. Berangon edo Sopelan pertsiana gehienak behean lotu ziren; Artean barriz, goian.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Plentzia elurtuta

guztiz estalita

Eskualdeko irudi ederra eta zuria dakargu orriotara zenbaki honetan. Plentzia da, bai. Gezurra badirudi ere, elurra ere ezagutu izan dute Plentzian. Txalupak ere estaltzen zituen elurrak. Argazki honen atzean dago egungo zubi zuria, eta han aurrean ikus daiteke kasinoa, eskubiko aldean. Aurreko mendian, itsasadarretik bestaldera, Barrikako zahar etxea dago. Oraindino egin barik zeuden azpiko txaletak. Iraganez doa denbora, eraikinez betez doaz mendiak eta lur sailak. Eta nola aldatu den eguraldia, ezta? Uribe Kostan, behintzat, 80ko urteetatik ez dugu jasan tamainako elurterik.

[berbetan]

Autokarabanan igo eta Oñatitik Bilborako bidean abiatu zenetik, sariak jaso eta jaso dabil Fermin Etxegoien (Oñati, 1966). Lehenengoa Espainiako Kritika Saria izan zen eta ondoren etorri zen Literaturako Euskadi Saria, biak *Autokarabana* Etxegoien lehenengo eleberrientzat. Kazetaritzan ere badu ibilbidea; Berria egunkariko zutabegilea izateaz gain, mikro aurrean jartzera ausartu zen aspaldi. Bilbo Hiria irratan hasi eta egun, EITB taldeko Gaztea irratan, *Ekaitz perfektua* saioa zuzentzen du. Azken horregatik, Argia saria eman barri diote.

Fermin Etxegoien

Autokarabanan ekaitz perfektuaren bila

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Espainiako Kritikaren Saria, Literaturako Euskadi Saria eta orain Argia saria. Guztiak batera datoz ala bat jaso eta besteek hor zaudela ikusten dute?

—Egia esan, ez dakit. Eleberriarrenak ildo bereko sari bi dira, Espainiako Kritikaren saria esaten denean, hemengo kritikariek ematen dute. Inoiz jendeak pentsa dezake izenagatik Espainian bildu direla 200 kritikari euskal liburuak saritzeko eta ez da horrela, inolaz ere. Espainiako saria esaten zaio baina errealitatean euskal kritikarien arteko erabakia da eta, gainera, Euskal Herrian ere, kritikari gutxi hartutako erabakia. Hori horrela da. Izan ere, Kritika saria eman duten batzuek Euskadi sarietako epaimahaiaren parte hartu dute. Beraz, ez da hain harrigarria ildo bereko sariak direlako. Argia sariari dagokionez, hirugarren saria da Argian. Bat jaso genuen modu kolektiboan Bilbo Hiria Irratan duela hamar bat urte; beste bat prentsan Berriarako egiten nituen telebistari buruzko kritikengatik. Prentsa saria duela bost bat

urte eman zidaten. Orduan... ez dut ateratzen konklusio garbirik. Atera daitezke, zer den modan eta zer den komunikabideetan egotea eta nola horrek biderkatzen duen presentzia eta hori guztia; gainera, gurean, mundu horren txikia izaki, are gehiago. Baina, nahiago dut ez atera.

—Literaturako Euskadi Saria ere jaso duzu... zeinek balio du gehien zuretzat?
—Saria norberaren egoa puzteko balio

“Espainiako Kritika Saria esaten zaio, baina errealitatean euskal kritikari gutxi batzuek hartutako erabakia da”

duen neurrian, Euskadi Saria askoz ikusgarriagoa da. Eta gainera badago dirua atzean, kritikaren sarian ez bezala.

—Zergatik ikusgarriagoa?

—Prentsa aldetik eta komunikabideen aldetik norberarengan jartzen den arreta askoz handiagoa delako. Kritika saria oharkabea ez, baina oharkabeago

joaten da. Esan dudana bezala, ildo oso berekoak dira. Euskadi Saria ematen duen epaimahaia nork osatzen duen begiratu gero, egon zitezkeen ere Kritika Saria ematen. Ez da hain desberdina. Euskadi Saria hobeto dago egoa puzteko, dirua dagoelako tartean eta komunikabideek “pelota” egiten digutelako.

—Euskadi Sariak eztabaida handia sortu du. Zenbait idazlek horrelakoak

esan zituzten Sariaren inguruan: *“Euskadi Sariak literaturaren kontzeptu murriz bat hedatzen dute iritzi publikoan eta irakurle goan. Egungo aginteari otzana zaion jardun intelektual eta literario bat sortzea dute helburu”*. Zergatik uste duzu agertu zela jarrera eta mugimendu hori?



—Nik hori kanpotik baino ez dut bizi izan oraintsu arte. Modu gordinean, modu zuzenean esanda: Ezker Abertzalearen sentiberatasuna eta mundu ikuskera islatzen duten idazleei sekula ez zaie eman Euskadi Saria. Sentiberatasun horretan dagoen zenbait jende pentsatzen du hor badagoela partzialkeria, onargarria ez dena. Eta horren aurka esaten dute: hau da zuen saria baina ez gurea, nahiago dugu kanpoan izan. Hori garai bateko, “Utikan Euskadi Sariak” polemikari buruz.

—Eta horren aurrean zure iritzia ematen bustiko zara...

—Zein iritzi daukadan? Bai, horrela da. Saria ematen digute baldin eta epaimahaiak bat egiten badu idatzi dugunarekin. Orduan, nolako epaimahaia, halako sariduna. Beste epaimahai batekin beste norbait izango litzateke sariduna. Partzialtasuna ez da existitzen, noski. Existitzen dira sentiberatasun estetiko batzuk, ideologikotik asko daukatenak. Sentiberatasun estetikoa eta ideologia nahasten dira, gurutzatzen dira askotan. Baina hori hemen eta Kontxintxinan.

—Autokarabanan “ezagutzen zenuenaz” idatzi zenuela esan zenuen. Oñati, Kooperatiba, Bilbo, euskaldunon miseriak... ez da arriskutsua hurbilekoaz berba egitea?

—Nik kontrakoa esango nuke, arriskutsua da urrunekoaz hitz egitea, ez baitakigu zertaz ari garen. Dena den, gogoia ez da euskaldunon inguruan aritzea, gure buruaz hitz egitea baizik. Izan euskaldun izan erdaldun. Pertsona gehienak hibridoak dira; nik ez dut ezagutzen erdaldun ez den euskaldunik. Beraz, euskaldunok bai eta erdaldunok ez ala? Zer gara gu?

—Orain beste eleberrri batean lanean jarriko bazina, bide bera aukeratuko zenuke?

—Urrunera ez nintzateke joango, baina beste bide bat aukeratu bai, beste erregistro batekin idatziko nuke. Baina, batez ere, ez errepikatzearren. Hau lehen

pertsonan idatzita badago, agian hirugarren pertsona aukeratuko nuke edo agian tonua aldatu, zinismoa alde batera utzita adibidez.

—Sarien ajea pasatuta eta Autokarabana idatzi zenuenetik denbora pasatu denean, zelako sentipena gelditu zaizu?

—Jende askok irakurri duela; askori iru-

“Saria ematen digute epaimahaiak bat egiten badu idatzi dugunarekin; nolako epaimahaia halako sariduna”

ditu zaiola ispilu handi edo txiki bati begira zegoela eleberrria irakurrita. Eta jende askok ez duela begirada kendu ispilu horretatik, begiratu nahi izan duela ispilu horretan. Ikusi nahi izan duela bere burua.

—Liburua alde batera utzita, baina euskal literaturan jarraituz, zelan ikusten duzu euskal literatura? Bai hori bultzatzeko egiten diren politikak bai idazleen sorkuntza lanari dagokionez?

—Nire ustez euskal literaturan, hizkuntzaren beraren egoera ez sozializatu erdian dago. Erdian dago eta, nire kasuan, baita sorkuntzaren oinarrian ere. Izan ere, Autokarabana horri buruzko eleberrria da. Hizkuntza... normalizatu hitza ez zait gustatzen, ez dakit zer den normala. Baina, hizkuntza nagusia ez

“Euskal literaturari buruzko hausnarketak, neurri handi batean, hausnarketa soziolinguistikoak dira”

den egoera bati buruzko hausnarketa handi bat da, fikziora eramanda. Iruditzen zait, horrek baldintzatzen duela euskal literatura; bai nola idazten den baita nola ailegatzen den ere. Hala nola, nola ez den idazten eta nola ez den ailegatzen. Bururatzen zaizkidan hausnarketak edo ideiak oso koiunturalak

dira, balio dutelako koiuntura honetara. Esango banu: nire ustez honela idatzi behar da. Esango nuke modu ulergarri eta ailegatuko den modu batean. Horrekin esaten ari naiz nola ikusten dudana euskal literatura? Ez. Nik goza dezaket poesia mistikoarekin, baina... Laburbiltzeko: euskal literaturari buruzko hausnarketak neurri handi batean

hausnarketa soziolinguistikoak dira. Eta hortik aurrera, nik ez daukat interes handirik eztabaidatzeko ideologiaz, estetikaz... uste dut funtsa hor dagoela.

Politikei dagokienez gauza bera. Politikak, modu berean egon beharko lirateke oinarrituta: hizkuntzaren arrakasta soziala lortze aldera. Hori da gehien interesatzen zaidan kontzeptua; hala politika linguistikoan, nola literaturan.

—Azken boladan idazle gazte asko agertu da euskal literaturaren panorama, emakume asko... kalitateaz berba egiterik badago?

—Kalitateaz baino... barriro lehengo kontzeptura bueltatu nahiko nuke. Nire ustez, momentu honetan kalitatea arrakasta da. Eta zentzu horretan, iruditzen zait asko aurreratu dela. Gainera, orain

tua toki guztietan; beraz, uste dut euskal literatura bizirik dagoela; ez zentzu agoniko batean bakarrik, baizik eta arnasten duela.

—Idazle lana alde batera utzita eta kazetari lanari helduz, Argia Saria eman dizute, Ekaitz perfektua irratsaio-gatik. Esan daiteke Gaztearen barruan irla bat dela, doinua ere aldatzen diona beti alai eta barrez dagoen irratian?

—Bai, duda barik. Irrati komertzialean joko arauak oso garbi daude. Audiencia da joko araua; zentzu horretan Ekaitz perfektua besteak ahalbidetzen duen oasia da. Irrati komertzial arrakatsua ez badago, ez dago Ekaitz perfekturik.

—Irrati komertziala, gero eta komertzialago eta gero eta euskal musika gutxiago jartzen duena. Hori da Euskal Herriko gazteek eskatzen dutena?

—Galdera oso konplexua, erantzun oso konplexua eskatzen duena. Gaztean euskal musika entzuten da Espainiako irratian askotan Espainiako musika baino gehiago. Nik esango nizuke Gaztea irratiaren ez zaiola hizkuntzari horrenbeste begiratzen, baizik eta estiloari. Estilo ustez komertzial eta bigun batean euskaraz kantatutako musika hartzeko desiatzen dago Gazteako zuzendaritza. Nik esan dezaket hori horrela dela. Hizkuntza ez da oztopo, kopuru baten barruan noski; Euskadi Gazteak ez luke egingo %90 euskaraz, hori denok dakigu. Baina euskaraz egiteko prest dagoen

hori, erabat zintzoa da eta egin nahi da. Arazoa estiloari dagozkion kontuak dira. Eta horrek beste eztabaida batera eramaten gaitu: musika standard komertziala ala underground bezala ulertu duguna? Baina hori beste eztabaida bat da. Radio 3-ek 250.000 entzule ditu; huskeria Espainia mailan, erabat marginala da. Hori ikusita, pentsa daiteke:

“Estilo komertzial eta bigun batean euskaraz kantatutako musika hartzeko desiatzen dago Gazteako zuzendaritza”

Gaztea izan dadila ere marginala zentzu horretan. Baina, ez da egin horren alde, irratian komertzial baten alde baizik. Eta hor, argi esaten dut, egungo zuzendaritzaren arabera hizkuntza ez dela arazoa. Gehiago da beste dikotomia, underground vs komertziala.

—Kazetari moduan, idazle moduan, non sentitzen zara gusturago mikro aurrean ala ordenagailu aurrean?

—Ez dakit, lanbide honen parterik onetakoa hori izan daiteke, aldatzeko aukera izatea. Komunikatu ahal izatea modu desberdinetan. Musika zuzenean erabiltzeak beste sentsazio batzuk sortzen ditu... ez dakit, dena gustatzen zait. Faltan botako nuke irratiaren ez banengo.

—Amaitzeko, ez dakit jarraitu duzun baina azken asteotan editorial bateratua kaleratu dugu 70 euskal komuni-

kabidek baino gehiagok. Zuk Berria egunkarian parte hartzen duzu, zelan bizi duzu gai hori?

—Hori ere gai zaila da. Nire ustez hor krisia orokorra da; medio idatziaren kasuan argi dago. Internet da hau guztia aldatzen ari dena, ez da konpondu nola ordinarazi interneten doan irakurtzen dugunoi, musika entzuten dugunoi e.a.

Internet arazoa den modu berean izan beharko da konponbidea. Baina bide horretan, gauza asko galduko dira. Gizarte eraldaketa handi baten aurrean gaude, informazioa banatzeko orduan eta horren truke ordaintzeko orduan. Egunkariak eurak erabat galduta daude eta ez nabil Berria-z. Boteretsuenak ere bere buruaz beste egiten ari dira debaldede edizio horiekin guztiekin. Zentzu horretan, beti bezala, euskal eremua zer da? Minorizazio hori areagotzen duen eremua ala salbuespen gisa bere alde onak izan ditzakeen eremua? Ziur asko batetik eta bestetik egongo da. Berria ez da saltzen euskaraz delako edo saltzen da euskaraz delako? Bi galderei baietza eman ahal zaie. Konponbidea zer da, diru publikoa? Zer da AHT-ri kilometro bat kentzea euskarazko komunikabideak laguntzeko? ○

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak..... Kalea/zenb.....
 Herria..... e-mail..... Telefonoa.....
Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito)

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991. Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37




Udazken paisaiak


Argazkilaritza eta natura, zaletasun biak batzen ditu Deo Villasantek; gaztetatik egiten ditu argazkiak, beti ere paisaiak. Gernikarra sortzez, Gorkizen bizi da egun. Erakusketak egin ditu, banaka zein taldeka, hainbat sari irabazi du eta argazkigintza foroetan ere parte hartu du. Argazki sorta ederrak ikus ditzakezu bere webgunean: www.deovillasante.com. Hona hemen horietako batzuk aperitibo gisa; iragan udazkenean hartu zituen irudiok, Araba eta Bizkaiko basoetan.

Argazkiak: **Deo Villasante**











BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf.94 460 70 84

[zinema]

Benetako Orreaga

778 La Chanson de Roland

dokumentalak jaso du Orreagako **borroka**



Dokumentalaren irudi bat

Ikasleek *La Chanson de Roland* gesta-kanta ikasten dute European, euskal historiaren pasarte garrantzitsua kontatzen duena: Orreagako borroka. Handik 300 urtera idatzi zuten kanta, baina bertan kontatzen denetik zer da benetakoa? Olivier Van der Zee holandar zinema zuzendariak txikitatik ezagutzen du Rolanden kantua, baina ez zekien ezer baskoiei buruz, kantan sarrazenoak aipatzen baitira.

Euskal Herrira bizitzera etorrita ezagutu zuen Orreagan benetan gertatu zena, eta film batean kontatzea erabaki zuen; *778 La Chanson de Roland* dokumentala da emaitza: "Euskal gudarien

omenezko oroigarria aurkitu nuen, Carlomagno enperadorea Orreagan garaitzeagatik. Txikitari ikasitakoaren kontrakoa zen hori: 400.000 sarrazenok osatutako armadak, bertan behera utzi zuela bere atzealdea, Rolanden armada-buruarekin. Horrek, nire arreta erakarri eta 777 eta 778 urteetako gertaera historikoak aztertu nituen".

"Euskaldunen omenezko plaka topatu eta 778ko gertaerak aztertu nituen"

Ikerketa lana izan ei da gogorrena eta indusketek kendu diote denbora gehien. Lau ardatz dauzka filmak: Lehenik, zuzendariaren kontakizuna dago, filma egitearen arrazoiak aipatuz. Bigarrenik, 778ko Carlomagnoaren armadaren berregite historikoa egin du: "Zaragoza hartu zutenean bertako agintariek Cordobako emirgoaren babesa eskatu zuten, Carlomagnoaren infanteriako gerrari ezezagun bati jarraituz...". Hirugarrenik, indusketak ere bildu ditu, segada gertatu zen tokia topatu guran. Azkenik, historian, arkeologian, geografian eta bestelako gaietan aditu direnen lekukotzek osatu dute lana. Gure historia ezagutzeko aukera pare-bakoa daukagu esku-eskura. ○

www.lachansonderoland.com

Isasiren lan ezezagunak

Andres Isasi musikagilearen zenbait obra berreskuratu ditu Euskal Musikaren artxiboak



www.eresbil.com

Andres Isasi konpositorea (Bilbo, 1890-Getxo, 1940) Getxon bizi izan zen, baina bere obra osoa ez genuen ezagutzen. Orain, barriz, Eresbil Euskal Musikaren Artxiboan gorde dute iaz aurkitutako hainbat partitura, edo hobeto esanda, kristalezko hainbat argazki negatibo.

Zarauzko Photomuseumeko erakusketan batean erakutsi zituzten negatiboak, Bizkaiko bildumagile batenak. Horiek digitalizatzeko eskaintza onartu zuen bildumagileak eta horrela biltzen hasi ziren partiturak.

Eusko Ikaskuntzaren laguntzagaz

digitalizatu dituzte 33 kristalak eta horien edukia aztertzen dabilta orain. Baina ez daude bakarrik, Isasi musika laukotearen laguntza daukate. Aurkitu partituretatik obra osoak atera ote daitezkeen aztertzen dabilta, gero interpretatu ahal izateko. Partiturak garbira pasatzen ari dira orain, izan ere, ezer baino lehen, materiala presatu beharra dago.

Euskal konpositoreen lanak gordetzen dituzte Eresbilen. Dagoeneko 29.000 partitura gordeta dauzkate Erretereriako Euskal Musikaren Artxiboan, iaz beste 568 lan gehitu zizkieten-eta. ○

ikuskizuna > Hostoak

Musika, kantua eta dantzak uztartuko ditu *Hostoak* ikuskizunak. Oreak TX, Kukai dantza taldea eta Amaren alabak kantariak sortu dute. Otsailaren 19an estreinatuko dute Donostian, eta martxoaren 16an izango dira Bilboko Arriagan. Tradizioa oinarri, barrikuntzak ekarri dituzte hirurek, bakoitzak bere esparruan: "Guztiok gatz euskal kulturatik edo tradizioetik, baina bakoitzak proposamen modernoetarako eboluzionatu du", argitu dute. Horregatik erabiliko dute hostoen metafora: "Hostoz josita dago euskal kulturaren zuhaitza, sustraiak tradizioan errotuta baina adarrak barrikuntzetara begira". Koloreetako hostoak, askotariko formak eta kontrasteak eskainiko dituzte.

BBK Live > izarren distira

Amy Winehouse, Jack Johnson, The Chemical Brothers, Crystal Castles, Coldplay edota The Black Crowes taldeek dagoeneko baieztatu dute Bilboko BBK Live jaialdian joko dutela, uztailearen 7tik 9ra. Beraz, kanpoko izar handiez betetzen ari da kartela. Otsailean gaude oraindik eta kartela osatzear dago, baina izarren distirak erakarrita, sarrerak erosten hasi da ikusentzulegoa. Eskaintza berezia bukatu da, baina BBKko kutxazainetan, hainbat dendatan, ticketmasterren bitartez edota interneten eros daitezke, www.bbk.es gunean. Informazio gehiago eta azken barriak topatuko dituzu jaialdiaren webgunean.

www.bilbaobbklive.com

diskoak

En zuzbang
Bizardunak
Gor



Duela urte eta erdi hasi ziren kontzertuak ematen, eta dagoeneko, bigarren diskoa egin dute nafarrek. Aurreko diskoan bertso asko zegoen, baina lan honetan eurek sortu dituzte kantak. Guztiaren kontra ekiten duten ereserkiak ere kantatzen dituzte, esaterako, lan honetako "500 urte", Nafarroako erresumaren omenez.

Bake garaietarako...
Banda Batxoki
Musiknema



Bake garaietarako borroka kantak hirugarren diskoa kaleratu dute Banda Batxoki txantrearek. Punk, rock eta ska estiloko 18 kantutik gorak osatzen du. Eurek sortutakoak batzuk, autobertsioak beste batzuk, eta azkenik, beste musika batzuen omenaldiak. Etekinen zati bat Eguzki irratian emango diote, egitasmoa bultzatu asmoz.

El judiero
Rita Indiana...



Karibea ez da merenge doinua soilik, horren erakusle da Rita Indiana dominikarrak Los Misterios taldeagaz eginiko lan hau. Indiana abeslari, idazle eta aktorea da turistek oporretan entzuten dutenaz gainera, Errepublikan Dominikarlean beste musikak ere badaudela erakustera dator. Halere, erritmo dantzarriak dakartza, nola ez!

KOSKA
irratia 108 fm

etorri eta ikusi!!

MORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kaleko bar) Tf. 94 491 68 05 Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko deskontua izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta


[liburuak]

Euskarazko lehen etxean Gasteizen ikusgai *Linguae Vasconum Primitiae* euskaraz inprimatutako lehen lana

Bernat Etxepare apaiz eta idazle baxenafarrak idatzi zuen euskaraz inprimatutako lehen liburua 1545ean, *Linguae Vasconum Primitiae*. Frantziako Liburutegi Nazionalean egon da orain arte liburuaren ale bakarra, Parisen. Baina Euskal Herrira etorri da bisitan eta lehenengoz ikus daiteke, martxoaren 31 arte: Gasteizko Legebiltzarrean dago “*Euskara jalgi hadi plazara*” erakusketaren barruan, Tomas Moro aretoan. Etxepareren liburua ez da bakarrik etorri, izan ere, XVI eta XVII. mendeen artean euskaragaz harremana daukaten beste hamahiru altxor biltzen du erakusketak; hala nola, Juan Perez de Lazarraga, Arnaut Oihenart, Joanes Leizarraga edota Pedro Agerre Axularrenak.

XVI eta XVII. mendeetako euskarazko 14 idazlan batu dituzte erakusketan

Linguae Vasconum Primitiae Bordelen inprimatu zuten. Maitasuna, erlijioa eta euskarari buruzko 15 bertsok eta prosazko sarrerak osatzen dute. Aipatu legez, liburuaren ale bakarra geratzen da. Izan ere, apaizek idatzitako obra “*amoralak*” erretzeko agindu zuen eliza katolikoak, eta frantziar liburutegiaren esku lotu zen



Linguae Vasconum Primitiae

salbatutako ale bakarra. Protestanteen eta katolikoaren arteko gatazka gertatu zenean, erdian geratu zen Etxepare, bere lana ez baitzuten gustuko ez batzuek, ez besteek. Frantziako Liburutegi Nazionalean gorde zuten liburua, erregearen liburutegira edizio guztietatik ale bat eroan eta bertan gordetzen hasi zirelako.

Erakusketan Juan Perez de Lazarraga arabarraren eskuizkribua ere ikus daiteke, 1564 eta 1567 artean idatzia. Bertan aipatzen da lehenengoz *Euskal Herria* hitza. Borka Aginagaldek aurkitu zuen 2004an eta Gasteizko BiBat Museoa egon ohi da gordeta. ○

liburuak



Hamaiketan igerilekuan
A. Kazabon/A. Alonso
Txalaparta

Umeen arteko bromak dibertigarriak izan daitezke, irainak tartean sartu eta eguneroko errutina ez direnean. Denok bizi izan ditugu horrelakoak; batzuetan besteetan baino minuago sentitu gara. Non daude mugak? Bullying-a modu hunkigarrian lantzen da istorio honetan.



Ez dago etxean
Jokin Urain
Susa

20 urtetik gora preso daromatza Urainek eta kartzelazulotik idatzi du azken lana. 1937 eta 2009 urteen artean kartzelan egindako literaturaz hausnartu du oraingoan. Horregaz batera, garai berean izandako zenbait ihes-saioren kontakizuna ere egin du.

[kirola]

Baikortasunari helduta

Aspaldiko partez, 16-17 adin tarteko nesken eskubaloit taldea sortu dute Urdulizen Saria



Urdulizko Iparralde kiroldegian egiten dituzte entrenamenduak

Harribitxia da 16-17 urte bitarteko gazteek Urdulizen sortu barri duten eskubaloit taldea. Izan ere, urteak igaro dira herrian adin tarte horretako azken nesken eskubaloit taldea sortu zenetik. Gainera, eskubaloia da neskek Urdulizen egin dezaketen kirol bakarra. Etorkizuna baikorra den arren, Jon Arrausi entrenatzaileak gidatzen duen taldeak trabak izaten jarraitzen du. Gazteen arabera, “*denboraldia ez da oso ondo joan, lau talde baino ez gaudelako ligan. Gure jokatzeko era hobetzen hasi garenerako, liga bukatu zaigu*”. Liga luzeagoa izango balitz, hobetzeko aukera handiagoa izango luketela uste dute kirolariek. Izan ere, lau taldek baino ez du osatu txapelketa: Urdaibai, San Adrian, Askartza eta Urdulizko taldea. Urrian hasi zen liga, eta abendurako jada bukatuta zegoen.

Hala ere, entrenamenduak jarraitzen dute gazteek. Izan ere, hurrengo astetan Bizkaiko Eskubaloit Kopa jokatuko dute. “*Trabazi gura dugun arren, garrantzitsuen parte hartzea eta ondo pasatzea*

da”. Uda aldean, gainera, Bartzelonan antolatzen den nazioarteko eskubaloit txapelketa parte hartuko dute. Iaz, Txina, Herbehereak eta munduko beste herrialde batzuetako 15 talderi aurre eginez, laugarren lotu ziren urduliztarrek. Iazko marka hobetzeko helburuagaz joango dira aurten Bartzelonara. Partiduetan jarraitzaileak ere ez dituzte faltan izaten.

Bartzelonako nazioarteko eskubaloit txapelketa parte hartuko dute udan

Hurrengo urtean, sasi guztien gainetik eskubaloitagaz jarraitzeko asmoa aldarrikatu dute Urdulizko Eskubaloit taldeko neska gazteek. Hurrengo urtean senior kategorian lehiatuko dira, eta taldea osatze aldera, Urduliz eta inguruetako neska taldera lotzera animatu gura dituzte. Kirola egiteko giro jatorra bermatuta izango dute Ainhoa, Artabe, Oihane, Olatz, Ane, Bego, Naiara, Natalia, Flavia, Andrea eta Jonegaz batera kirola egitera animatzen direnek! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIZOL moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Iratxe Retolaza > Literatura eta hizkuntza irakaslea EHUUn

“Euskarazko literatura sorkuntzari feminismitik begiratuko diogu”

Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean irakasle da Iratxe Retolaza donostiarra. Asteotan Getxon dabil Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan, Irakurketa feministak literaturan tailerra ematen, euskaraz.

—Irakurketa feministak literaturan tailerragaz zabiltzate, zer lantzen duzue?

—Jaso dugun heziketa literarioari buruz hausnartuko dugu. Denok badugu irakurtzeko ohitura, eskolaz kanpo beste bitartekoetatik jasotzen dugu heziketa hori, komunikabideetatik, e.a. Tailerrean parte hartzen dugun emakumeak feministak izango gara gainera. Hortik abiatuta gogoeta egingo dugu irakurtzean jasotako ohiturei buruz, horietako askok keinu matxistak dauzkatela ikusiko dugu, baina ez garelako ohartu; ikasketa prozesuan jasotako literatura irakurtzeko balioak, ona eta txarra zer den eta pertsonaiari nola begiratu, hori dena tradizio batetik jaso dugu. Tailerrean euskal literatura da landuko duguna, baina euskaraz sortutako literaturan oso berandura arte ez da gaiaz hitz egin. Heziketa literarioa beste ikuspuntu batetik berreraiki behar dela jabetuko gara. Irakurketak eta eztabaidak egingo ditugu.

—Zelan landuko duzue?

—Batez ere tailer praktikoa da. Testuak eman eta galderen bitartez, irakurleen interpretazioetatik tiratuko dut, ohar gaitzen zergatik egiten ditugun hautu eta interpretazio batzuk eta ez beste batzuk testuak irakurtzean. Testuak informazio batzuk ematen ditu, baina irakurleak osatu beharreko hutsune asko dago, pertsonaia eta espazioen ezaugarriei buruz. Hitzek ezaugarriak eskaintzen dituzte,



Martxoaren 22ra arte luzatuko da “Irakurketa feministak literaturan” tailerra

baina askoz gehiago dira esan gabe doazenak eta guk geuk sortzen ditugunak. Hutsuneok nola betetzen ditugun aztertzean, oihartzen gara zenbateraino barneratuta dauzkagun ohitura batzuk, eta nola baztertzen ditugun testuak ematen dituen beste aukera asko, arau ofizialeatik kanpo daudelako.

“Parte-hartzaileek kontzientzia dute; halere sorpresa hartzen dute, ohitura batzuk guztiz barneratuta ditugulako, oharkabe”

—Euskal literatura landuko duzue.

—Hori da tailerraren beste barritasuna. Euskarazko literatura da landuko duguna, euskal begiradatik aztertuko dugu euskaraz egin eta pentsatutako literatura. Euskal kulturako beste adierazpenekin dituzten harremanak ere ikusiko ditugu, adibidez egokitzapenak. Euskarazko sor-

kuntzari feminismitik begiratuko diogu, begirada feminista gehituta. Genero gramatikalik ez du euskaraz, sormen ikuspunturako bestelako aukerak ematen ditu, baina halere, zein bide hartzen diren ikusiko dugu.

—Beste tailerrik eman duzu, zer ondorio atera dituzu?

—Ondarrun hirugarren urratsa egingo dugu. Parte hartu duten asko mugimendu feministan eta Jabekuntza Eskoletan aritu izan dira, kontzientzia dute, baina halere, sorpresa hartzen dute irakurketa batzuekin. Tailerraren ondoren begirada feminista elikatuz doaz irakurtzean, eta gaia landu beharraz jabetu dira. ○

Fredi Paia

Seinen olgetak

Bideo-joko, ordenagailu eta parke tematikoen sasoian bizi gara. Halan bere, daborduko gitxiago ikusten diran, baina atzo goizera arte gure eskualdeko edozein baztarretan praktikan ziran olgeten barri emongo deusuegu.

Hasteko, esan daigun ikastolan *jolastu* esaten irakatsi euskuena gurean *olga* edo *olgau* esaten izan dala. *Kalera urten dot olgaten, futbolen olgaten ibil garez*, itxi (egi)zuz olgetok!... Onartu behar dogu *jolastu* aditza indar handiz sartu dala eta aitaita-amama askok *olgau* baztatu eta *jolastera* eroaten dituala lobatuak. Izan bere, gurea da umeek nagusieri berbetan irakatsi eta zuzentzen deusien munduko leku bakarretarikoa, bakarra ez esatearik.

Jolasa gure eskualdeko berba jatorra da. Baina *jolasa* ez da *olgeta*. *Jolasa* domeka arrastian herriko plazetan mutil eta neska gazteak alkartzeko dantzaldiari esaten izan jako. Alkar ezagutu, mutilek neskatoeri etxera lagundu eta lehenengo bikoteak sortzeko dantzaldia zan *jolasa*. Algortan, esaterako, Txiki Otaegi plazan egiten zan *jolasa*. Beraz, ez da harrizkoa plaza aurreko tabernetako batek *Jolasurre* izena aukitea. Metonimiaren ondorioz, musikariak paretako kioskodun plazeari *jolasa* esaten izan deuto hainbatek.

Halanda ze, *jolasa* nahi *olgeta*, biak dira ekimen ludikoak. Behin hori argituta, aitatu daiguzan ohikoak izan diran *olgeten* bertoko euskerazko ordainak:

Ostu-ostuke esaten jako Hezetan auzo edo Aranaldeko seinok *al esconderite* deitzen geuntsen *olgetari*. Karraderan eginda, ostu edo ezkutatu nahi ez, alkar harrapatzean datzan *olgetari kuite* deretxo. (Kosi edo kui= hartu-harrapatu). *Sokaka* edo *soka-jantzan* esaten jake orokorrean *sokagaz* lotuta dagozan *olgeta* guztiei. *Gomaka* edo *goma-jantzan*, ondorioz, gomagaz egindakoeri. Sein bat bestearen bizkarrera



Aretxondoko aldatsako eskelak ipinteko postea zen *Oto kaliteo* olgetaren ardatza

igon edo *iyenta* karraderan ibiltari, *astoka* esaten jako. Izter baten ganean korrika ibiltari *kisketen* (pata coja), batuaz *panpin*

«Ostu-ostuke esaten jako Hezetan auzo edo Aranaldeko seinok al esconderite deitzen geuntsen olgetari»

deretxonari *andrakila*, *tronpaka* olgetan *tronpak* luzaroan leku berean dantza egiteko *tronpoi lo dau* esaten zan...

Txatximingorin: *Olgeta* hau Lemoiz, Gorliz, Plentzia eta Jatabe inguruan batua da. Seine batek esku biak zabaldu eta garaitiko bakotxak atzamar batetik oratzen eutsen, beraz, asko jota hamaika parte hartzaile egozan: eskuak zabaldu eta

atzamar bakotxari oratuta sein bana. Eskuak zabaldu ebazan *txatximingorin bat, bi eta hiru* esakeran beste seinek karraderan egiten eben alde eta *kuite* hasten ziran. Atzamarra askatzeko denporea klabea izaten zan *olgetan*.

Oto kaliteo: Algortako Portu Zaharrean batutako *olgeta* da eta beste herri batzuetan *kateka* esaten jako. Aretxondoko aldatsa jaitsita dagoan bidegurutzean eskelak ipinteko ibiltzen zan postea zan *olgetaren* ardatza. Hiruk txanda aukien. Batek garaitiko umeen atzetik karraderan egiten eban pareko etxeari bueltak emonez. Bat kosikeran postean lotzen zan, eta harrapatutakoan artean katea osatzen eben. Txanda aukien beste biak etxeari buelta bakotxa emokieran katekoak askatu ez egiezan ahalegintzen ziran. Batek bestearen eskua ukututea nahikoa zan katekoak askatzeko. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com

La Triangu.



Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07

berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

UK

Taberna

Mariandresena 1, Algorta

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[gaurko aukera]

Euskara ahosabaian

Taberna Berriko gutziak



Nor-nori-nork pintxoa egin zuten Taberna Berrikoek

Abendua akabuan egin zuten GetxONegin Pintxo Lehiaketa Getxon, bigarren, ostalaritzan euskara bultzatzeko helburuagaz. Udaleko Euskara Zerbitzuak eta tabernekin antolatuta zuten. Hainbat sari banatu zuten, epaimahaiak emandakoak batzuk eta bezeroek emandakoak besteak.

Herriko 33 tabernekin parte hartu zuten lehiaketan. Pintxo bana aurkeztu zuten, euskaragaz lotutako izenburuagaz eta espresuki lehiaketa honetarako sortua. Asteburu hartan saldu zituzten, euro baten truke. Orriotara ekarri dugu pintxo horietako bat, Algortako Taberna Berrik (Sarrikobaso, 4) aurkeztutakoa.

Nor-nori-nork izena zeraman, Manu Torralba tabernako nagusiak jakinarazi

digenez. Bakailao pintxoaren, ajoarriero erara prestatua. Baina bazuen berezitasunik. Ohiko ajoarrieroak bakailaoa eta piper gorria darama, saltsan gehitu zizkieten txistorra eta piper berdea Taberna Berrin, *“kutsu desberdina izan zezan”*. Eta arrakasta lortu zuten, *“pintxo asko saldu zen eta”*.

Arrakasta taberna guztietan nabaritu ei zen, baina Torralbak dioenez, *“garrantzitsuena ez zen asko saltzea, euskara eta tabernak bultzatzea baizik; luzera nabari dira emaitzak gisako ekimenetan”*. Eta badirudi helburua lortu zutela: *“bezeroak pozik zeuden, oso ondo atera zen ekimenā”*.

Taberna Berrin ohiko erreferente dira pintxoak egunerokoan. Izan ere, eguneko giroa daukate; pintxoak, gosariak eta poteoa izan dituzte ikur 11 urteotan. ○

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA


KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

ARTAZA ETXEA

JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

BASARTENA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berrri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Uuribefm 107.8

Gorliz Irratia

[horoskopoa]

<p>URA</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Azkenean elkartu zara zure maitefoagaz eta zoraturta zabilza, burua hodei artean. Balendin Deuna ospatzea ere burutik pasa zaizu. Hamabost urtekoa ematen duzu...</p>	<p>OTSOA</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Zu bai zorionekoa, lagunen inbidia duzu, etxe bat egokitu zaizu-eta. Baina orain hasiko zaizkizu buruhaustek, bankuakaz berba egin, altzariak erosi, e.a. Baina zu bai zorionekoa!</p>	<p>ADARRA</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Euren eguna ospatuko dute adar batzuek. Sekulako jai egingo dute, luzaroen oroitzen diren horietakoa. Ez alferrik galdu aukera, primeran pasatu eta gozatu!</p>
<p>AITZURRA</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Azterketak amaitu dituzu, behingoagatik! Baina dagoeneko kexaka? Hamaika lan egin behar duzu eta kasera joan. Normala da gero kexaka ibiltzea!</p>	<p>HOSTOA</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Ikastolako lagun bat etorriko zaizu bisitan, azken urteak atzerrian igaro baititu. Baina oso aldatuta bueltatuko da eta ez zarete elkarregaz konponduko. Izan pazientzia.</p>	<p>EGUZKIA</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Garai barri bat hasiko duzu, lan aldaketak medio. Baina lasai egon, onerako izango da-eta. Gustura egongo zara lantoki barrian eta lankideek harrera beroa egingo dizute.</p>
<p>GARIA</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Aurreko zapatuan ezagutu zenuen pertsona burutik kendu ezinik zabilza, kontzentratzeko ahalegin handia egin behar duzu. Balendin Deunaren arrastoa izango da...</p>	<p>LASTOA</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Udako eguzki berotan jaioa izanik, negua gogorra eta luzea egiten ari zaizu, hotza ezin kendu zabilza. Laster iritsiko da udabarria eta epeltasun goxoa.</p>	<p>IRATZEA</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Jakina da urtarrila hilabete latza izan ohi dela ekonomia gaietarako, baina baita otsaila ere, eta martxo, e.a. Beno, osasuna behintzat ez duzu falta, urten kalera arnasa hartzera!</p>
<p>META</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Jokabidea aldatu eta askoz positiboago zabilza, bizitzari irri egiten diozu orain. Horrek emango dizu indarra edozein egitasmotan murgildu eta aurrera eroateko.</p>	<p>HAZIA</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Mendirira joango zara aspaldiko partez, baina entrenatu barik eta orkatila bihurtzeko zorian egongo zara. Hurrengorako badakizu, muino txikietatik hasi Gorbeira joan aurretik.</p>	<p>NEGUA</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Zure ahoari berdea dario senideen bisitak jasotzean, irrikan zaude asteburua noiz iritsiko. Norbaitek lerd-zapia oparitu behar lizuke, kamiseta guztiak hondatu baino lehen...</p>



NORA EUSKAL HERRIA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

Eskuratu

KIOSKOAN: Hilabetero 2,5€ ordainduta BERRIA egunkariarekin batera	ETXEAN: Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta. Kioskoan baina %20 merkeago.
--	---

Harpidetza egiteko:
TELEFONUZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info

» BEGIRIK KENDU GABE:



Bila itzazu "l" hizkiak hasten diren 10 elementu, gutxienez.

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nork egin du
Getxoko Galea
inguruan inauguratu
barri duten eskultura?

> Aurrekoaren erantzuna: "Independencia: de reivindicación..."

> Irabazlea: **Julen Ribera***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zer dakar 189.
zenbakiko azalak?

- **Hondartza**
- **Basoa**
- **Basamortua**

> Aurrekoaren erantzuna: Sirenoa

> Irabazlea: **Itsusko Zarraga***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf: 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



SARIA

La Gusana
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf: 94 491 14 12

lag

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



*ATXAZPE'K UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ASTRABUDUKO "ATXAZPE" MENDI TALDEA, 1957

ATXAZPE mendi taldea, Astrabudua auzoko hamabi lagunek 1956an sortutakoa du. Mende erdia baino gehiago, beraz. Lehen urte bietan hainbat urteera antolatu zituzten eta argazkikoa, Zornotza aldekoa, horietako bat. Mendizaletasuna bazegoela frogatzen du Erandioko Axpen kokatutako "Industrias Aguirera" enpresaren jokoerak. Mendi talde bat sortu zuen enpresaren barruan eta, pizgarri bezala, tontorrera igotzen zuten enpresako langileei 50 pezetako saria ematen zien (enpresa horretako langileak ziren taldeko Candido Ballesteros eta Josetxu Zubillaga); eta, gainera, ibilaldi neurtuak ere antolatzen zituen. Orduko txapelketa eta ibilaldi neurtuetan irabazitako dominak (batzuk behintzat), "Atxazpe"ren egoitzan daude. Esate baterako argazkiko Pedro Elosegik 10.000 metrotakoa du, 1959koa; Josetxu Zubillagak 40.000 metrotako bi domina ditu, 1957an eta 1958an lortutakoak. ○

Zutunik: Candido Ballesteros, Pedro Elosegik, Jose Mari Cabezas, Jaime Linares, Karmelo Llantada, Miguel Aresti, Josetxu Zubillaga, Iñaki Uri, Juan Mari Agirre, Jose Luis Uriagereka.

Makurtuta: ??, Gregorio Agirre, Jesus Ruiz Mezo.

DAVID DE JORGE, "ROBIN FOOD" > sukaldaria

"Bikotea lotan dagoenean puzker gupidatsuak botatzea bizioa da"

Testua: **Julen Nafarrate**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Ergel hutsa.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Babe txerrixo ausarta pelikulan.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?

Besobakarra eta kubata adiktua den xake jokalaria bulgariarra.

Zure hautzaroko oroitzapen bat?

Aldean egiten nuela txiza.

Badukazu ohitura txarren bat?

Gidatzea. Txoferra behar dut.

Aitor dezakezun bizio bat.

Uzker gupidatsuak botatzea nire bikotea lo dagoenean.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Hogei mila lekoatoko urazpiko bidaia.

Eguna ala gaua?

Eguna.

Zerk ematen dizu beldurra? Zergatik?

Noizbait Juan Manuel de Prada gobernuko presidente izatea, ikaragarria izango litzateke.

Parrandarik politenak non?

Gure etxean.

Zure platerik gogokoena?


Plater sakona.

Afari bat egiteko lekurik onena?

Mahai baten inguruan, aulki batean eserita, galtzontzilotan.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Santimamiñeko kobarik sakonena, inor ez dagoelako. ◦



230 erantzun jaso ditugu, baina zurea falta zaigu!

Epea luzatu dugu!

Baieztatu aldizkaria jasotzen jarraitu gura duzula, martxoaren 15a baino lehen!

uk@aldizkaria.biz

94 491 13 37

Martikoena kalea 16, 2. solairua

48992 GETXO



Unibertsitateko Aisia Kulturala

Getxo

2010-11 Ikasturtea // 2. seihilekoa

IKASTAROA:

PSIKOLOGIA POSITIBOA:

erlaziozko ongizatea bermatzen duten osagaiak

Irakaslea: Daniel Marañón

Lekua: Algortako Kultur Etxea (Villamonte)

Ordutegia: 19:00-20:30 (astearteetan)

Egutegia:

Otsaila	22
Martxoa	1, 8, 15, 22, 29
Apirila	5, 12
Maiatza	3, 10

Eta gainera...

- **Panorama del relato breve** // **Irakaslea:** Orietta Cabrera
otsailaren 22tik maiatzaren 10era (astearteetan, 17:00etatik 18:30era)
- **Los colores de la Música** // **Irakaslea:** Mercedes Albaina
otsailaren 24tik maiatzaren 12ra (ostegunetan, 17:30etik 19:00etara)
- **Cuando el cerebro se agota: depresión y demencia** // **Irakaslea:** José Manuel Montero
otsailaren 24tik maiatzaren 12ra (ostegunetan, 19:15etik 20:45era)

INFORMAZIO GEHIAGO: Algortako Kultur Etxea (Villamonte, A-8) // Tel.: 94 491 40 80